

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

DONOSTIAKO ZUZENBIDE FAKULTATEA

ZUZENBIDEKO GRADUA

eman ta zabal zazu



**Universidad
del País Vasco**

**Euskal Herriko
Unibertsitatea**

**KONSTITUZIOA ETA (EZ) FEMINISMOA
ESPAINIAN. KONTZILIAZIO ESKUBIDEA ETA
ERREFORMA ERANTZUNKIDETASUNAREN
IKUSPEGITIK**

Egilea

LEIRE MUJIKA GARCIA

Zuzendaria

ANA ROSA GONZALEZ MURUA

Gradu Amaierako Lana. 2017-2018 ikasturtea.

AURKIBIDEA

0. METODOLOGIA	3
A. Sarrera	3
B. Gaiaren aukeraketa.....	3
C. Lanaren helburuak	3
D. Ikerketa prozesua.....	4
E. Sorturiko arazoak.....	5
1. SARRERA.....	6
2. EMAKUMEAREN BABES KONSTITUZIONALAREN BILAKAERA HISTORIKOA DIKOTOMIA PUBLIKO-PRIBATUAREN IKUSPEGITIK.....	7
2.1. EMAKUMEAREN BABES ILUSTRAZIOIK II. ERREPUBLIKARA ARTE	7
2.1.1. Ilustrazio garaia.....	8
2.1.2. II. Errepublika	9
2.2. EMAKUMEAREN BABES JURIDIKOA FRANKISMOAN.....	11
2.2.1. FRANKISMOAREN LEHEN URTEAK (1936-1959)	12
2.2.2. FRANKISMOAREN AZKEN URTEAK (1960-1975)	13
2.3. EMAKUMEAREN BABES KONSTITUZIONALA 1978-KO KONSTITUZIOAN...14	
2.3.1. 1975-1977 urteak.....	14
2.3.2. 1978tik gaur egunera arte	14
2.3.3. Jurisprudenzia.....	18
3. KONSTITUZIOAREN ERREFORMA: KONTZILIAZIO ESKUBIDEA ERANTZUNKIDETASUNERANTZ BEGIRA.....	23
3.1. ERREFORMARAKO PROPOSAMENAK.....	23
3.1.1. Arlo publikoa.....	23
3.1.2. Arlo pribatua	23
3.2. KONTZILIAZIO/ERANTZUNKIDETASUNAREN ERREALITATE JURIDIKO- SOZIALA.....	26
3.2.1. Begirada bat araudi europar eta estatalari.....	26
3.2.2. Kontziliazioaren errealitate soziala.....	29
3.3. KONTZILIAZIO ESKUBIDEAREN IZAERA JURIDIKOA.....	31
3.3.1. Zergatik aurreikusi kontziliazio eskubideak oinarritzko eskubide autonomo gisa eta ez berdintasun printzipio eta diskriminaziorako debekuaren proiektio gisa?	33
3.3.2. Kontziliazio eskubidearen edukira hurbilketa.....	36
3.3.3. Kontziliazio eskubidearen Konstituzionalizaziorantz erantzunkidetasunaren ikuspegitik eta Konstituziorako proposamena	38
4. ONDORIOAK.....	42
5. BIBLIOGRAFIA	48

0. METODOLOGIA

A. Sarrera

Gradu Amaierako Lan honen metodologiak oinarrizko lau punturen inguruan dihardu. Lehenak, Konstituzioaren erreforma genero ikuspegitik lantzearen aukeraketa egitera bultzatu ninduten arrazoiak azaltzen ditu; bigarrenak, erreformaren bidez eskuratu nahi diren helburu orokor nahiz zehatzak agerraraztea du xede; hirugarrenak, behin-betiko testua idatzi arte aurrera eramano ikerketa saioa ezagutzera ematea du helburu, eta laugarren eta azkenak, ikerketaren lanketan sorturiko arazoaren berri eman nahi du.

B. Gaiaren aukeraketa

Gaiaren aukeraketa egiterakoan hainbat proposamen izan arren, ez zen zailtasun bereziko erabakia izan Konstituzioaren erreforma genero ikuspegitik lantzea, hautaketaren arrazoiak bi izanik nagusiki. Hasteko, lehen begirada batean, egungo espainiar gizartearen hainbat eta hainbat gatazken jatorria, 1978ko Konstituzioan dagoela esan ohi da, hauei konponbidea emateko gizarteak Konstituzioa aldatu eta berridazteko beharra ikusten duelarik. Bestetik, arazo sozialen artean, genero diskriminazioa gori-gorian dagoen auzia da, aurtengo martxoaren 8ko emakumeen egunean nabarmena izanik gatazkaren dimentsioa. Hori dela eta, Konstituzioaren erreformaren behar orokor bat dagoela ikusirik eta bereziki genero ikuspegiko arazoaren kontzientzia hartu denean, 1978ko Konstituzioak auzi honi zein erantzun ematen dion aztertzeko beharra ikusi nuen, gizartearen bilakaeran genero ikuspegia aintzat hartzeak izan dezakeen garrantziagatik hark dituen hutsuneei irtenbide bat bilatzeko asmoz.

Alabaina, gai hau zabala den heinean eta arazoaren jatorria dikotomia publiko-pribatuan dagoela ikusirik, gatazkaren oinarria dena analizatzea iruditu zitzaigun egokiena. Horregatik, ikerketa hau kontziliazio eskubidea erantzunkidetasunaren alderditik egongo da bideratua.

Halaber, beste ezer baino lehen, aipatzeko da Gradu Amaierako Lan hau ez dela momentuko lanketa hutsa, ikuspegi honetatik ikasten jarraitzeko ibilbide luzeago baten abiapuntua baizik.

C. Lanaren helburuak

- *Helburu orokorra:* Emakumeek eremu publiko nahiz pribatuan lortu dituzten konkistak Konstituzioan nola irudikatzen diren ikusita, hiritartasunaren ideia berria sortzea zaintzak antolakuntza sozialaren ardatz hartuz

- *Helburu zehatzak:*
 - Rousseauren teoria moral eta politikoak Espainiar gizartean nola barneratu eta eragin duten aztertzea, bereziki emakumearen papera zein den nabarmenduz.
 - Espainiako historian eta 1978ko Konstituziora arte egon diren Konstituzioetan genero ikuspegiak izan duen bilakaera analizatzea.
 - Auzitegi Konstituzionalaren sorreratik emakumeak babesteko eraiki den jurisprudentzia ikustea.
 - Espainiar Konstituzioak dikotomia publiko-pribatuaren hausturarako jasan beharko litzuzkeen erreformen aipamena egin eta banaketaren ardatza den erantzunkidetasunean zentratzea.
 - Egungo Konstituzioak kontziliazio eskubideari eskaintzen dioten babesa ikustea honek errealitate sozialean duen eragina ezagutzeko.
 - Kontziliazio eskubidearen ikuspegitik European dauden politikerara hurbilketa.
 - Kontziliazio eskubidea eskubide autonomoa edota berdintasunerako eskubide eta diskriminazio debekuaren proiektioa den ikertzea eta nire jarrera aurkeztea.
 - Erantzunkidetasunaren ikuspegiko kontziliazio eskubidearen eremua eta edukia izan beharko litzatekeenera hurbilketa.
 - Aldarrikapen sozialak ikusirik eta berdintasun eraginkorrerako duen garrantziagatik, kontziliazio eskubidea egokien babestuko lukeen testuaren proposamena.

D. Ikerketa prozesua

Ikerketa prozesua lanaren edukia zehazten hasi zen. Landu nahi genuen gaiaren ikuspegi orokorra argi izanik, eduki zehatza zein izan eta nola landu erabaki behar izan genuen ondoren baliatuko genuen materiala aukeratzeko. Bibliografian nagusiki formatu desberdineko argitalpen doktrinalak (liburu, monografia, artikulua, etab.), jurisprudentzia eta araudiak erabili genituen, baina beste zenbait tresnetara (dokumental, txosten eta estatistikak horien artean) ere jo genuen.

Edonola ere, testua hasiera batean aurkituriko bibliografiarekin lantzen hasi arren, lana osatzeko baliagarria zitzaien material berria topatu ahala hauek ere txertatuz joan ginen.

Nabarmendu nahi genuke, aztertu nahi izan dugun erantzunkidetasunaren ideia orain gutxikoa izateak lana doktrinan oinarritzera eraman gaituela.

Prozesu luze honetan eta lanaren behin-betiko ereduak izan arte, Gradu Amaierako Zuzendaria den Ana Rosa González Murua eta Leire Mujika García ikaslea, harremanetan egon ginen aldizkako bilera eta sistema telematikoko bitartez.

E. Sorturiko arazoak

Testuaren lanketan hainbat arazori aurre egin behar izan diogu. Hasteko, edukia mugatzerakoan zailtasunak izan genituen, izan ere, aztertu nahi genituen alderdiak asko ziren, baina orrialde kopuru mugatuak edukia murriztera eraman gintuen. Horregatik, aldaketa guztien artean genero diskriminazioaren jatorria den dikotomia publiko-primatuan zentratzea erabakia hartu genuen.

Bestetik, lanak kontziliazioaren inguruan diharduen arren, gaur egunera arte kontziliaziorik eman zaion esanahi desegokiagatik erantzunkidetasunaren alderditik landu nahi izan dut. Alabaina, erantzunkidetasunaren inguruko informazio urria dago, izan ere, nahiz eta kontziliazioaren arloa asko landu den gaia izan, ez da erantzunkidetasunaren ikuspegitik garatua izan. Ildo honetatik, nire lanaren helburua erreforma ikuspegi Konstituzionaletik lantzea izan den heinean, babes konstituzional hau eskaintzen duten herrialdeekin topo egitea ezinbestekoa izan zait, Konstituzioetan modu autonomoan babesten ez den oinarritzeko eskubidea dela ondorioztatuz.

1. SARRERA

Gizon-emakumeen arteko berdintasuna orain gutxira arte agerikotasun urriko gaia izanik egun pil-pilean dagoen auzia da, baina honek ez lioke merezi duen garrantzia kendu behar, ez baitira uneko eskaera hutsak, historian etengabe aldarrikatu diren eta isilpean mantendu direnak baizik.

Historikoki emakumeak gizartean izan duen presentzia eztabaidagarria izan daiteke, hierarkian antolaturiko sozietate batean, orokorrean, bigarren maila batean kokatu izan baita bere egoera naturala estatu eta gizonaren menpe egotea dela uste izateagatik. Menpekotasunaren arrazoia sexu-generoaren¹ bereizketak eragiten duen estereotipoen ondorioa da, hain zuzen ere, estereotipoek lanaren banaketa sexuala² eragiten dutelako, gizartea dikotomia publiko-pribatuan antolatuz.

Horrela, ba, gizon-emakumeen arteko berdintasun errealak eskuratu eta emakumeek hiritartasun eskubidea bere osotasunean egikaritzeko ezinbestekoa da eremu publiko eta pribatuaren arteko hesia hautsi eta denboraren erabilera parekatua eskuratzea. Horretarako, egungo politika eraldatu beharra dago orain arteko neurriek desberdintasun biologikoaz baliatuz banaketa areagotzea eragin baitute. Zentzu honetan, zuzenbidea errealitate sozial, politiko eta ekonomikoen interes eta beharretara moldatzen den instrumentua dela kontuan izanik, beharrezkoa da erantzukizunerantz bideraturiko Legeak sortzea eremu publiko nahiz pribatua gizon-emakumeen espazio bilakatzeko.

Hori dela eta, lanaren helburua 1978ko Espainiar Konstituzioak emakumeek egungo gizartean hiritartasunaren egikaritzan dituzten hutsuneei erantzuteko duen gaitasuna aztertu eta hauei irtenbide bat ematea da, genero ikuspegia aintzat hartzen ez duen Konstituzioa ez baita XIX. mendeko errealitatera egokitzen. Honela, lana bi atal nagusitan banatuko dut:

¹ ASTOLA MADARIAGA, Jasone, "La reforma Constitucional. La reforma de la Constitución Española desde una perspectiva de género". *En La reforma Constitucional: la organización territorial del Estado, la Unión Europea y la igualdad de género* (dir.: Roura S. eta Tajadura J.), Biblioteca Nueva, Madrid, 2005, 526 or. Sexuak baldintza organiko eta biologikoaren bereizketari egiten dio erreferentzia, generoak desoreka ekonomiko, sozial, politiko, laborala, etab. eragiten dituen kategoria sozio-kulturalari egiten diolarik. Espainiako Errege Akademiak ordea, ez du genero terminoa erabiltzen gizon-emakumeen arteko desberdintasun sozialaz hitz egiteko eta horregatik, sexu femeninoan oinarrituriko produktu kulturala garen heinean, genero ikuspegitik buruturiko erreforma izango da hau.

² Lan banaketa sexualaz Carol Patemanek dihardu lehen aldiz *El contrato sexual* liburuan, liburu hau aitzindari izanik hain zuzen ere.

Lehenbizi, dikotomia publiko-pribatua ezabatzeko egungo aldarria eremu pribatuaren demokratizazioa den arren, ezinbestekoak izan dira historian zehar eremu publikoa emakumeengana zabaltzeko eman diren pausoak. Horregatik, historikoki emakumeek espainiar Konstituzioetan izan duten babesaz aztertzen hasiko naiz, eremu guztiak gizonezkoek monopolizaturik zituztela ikustetik eremu publikoa nola konkistatzen duten ikusi arte.

Bigarrenean berriz, genero bereizketak eragiten duen lanaren banaketa sexualak gizon-emakumeen arteko denboraren erabilera desorekatua eragiten duela ohartzen gara, izan ere, emakumeek eremu publikoan euren presentzia izatea lortzean eremu pribatua gizonezkoengana zabaltze gabe lan-karga bikoitza izatea eragin du, emakumeei hiritartasun erreala egikaritzea galaraziz eta era berean, berdintasun erreala izatea. Hala, garrantzitsua da Konstituzioaren erreforma burutzea erantzunkidetasunari berme Konstituzionala aitortu eta eremu pribatuaren demokratizazioa eman dadin.

Hori dela eta, genero ikuspegiko Konstituzioaren erreforma kontzilio eskubidea erantzunkidetasunaren ikuspegitik oinarritzeko eskubide gisa barneratzeko zergatik den ezinbestekoa aztertuko dut, aldi berean eskubidearen eremua eta edukia izan beharko liratekeenak proposatuz.

2. EMAKUMEAREN BABES KONSTITUZIONALAREN BILAKAERA HISTORIKOA DIKOTOMIA PUBLIKO-PRIBATUAREN IKUSPEGITIK

Historiako eskubide guztiek bezala, genero ikuspegikoek ere, aurrerapen eta atzerapenak jasan dituzte, mugimendu guzti hauen emaitza izanik gaur egungo egoera. Horregatik, oraingo sozietatearen beharrak ulertu eta etorkizunari begira zer nahi dugun erabakitzeke, beharrezkoa da nondik gatozen ezagutzea, iraganeko jarrerak egun eman beharreko pausoak erakuts diezaguketelako.

2.1. EMAKUMEAREN BABES ILUSTRAZIOETIK II. ERREPUBLIKARA ARTE

Feminismoaren historia orokorrak eta espainiar feminismoak ez dute bat egiten denboran zehar, azken hau ez-garaian kokatu izan baita³. Hala, feminismoaren historia azaltzeko Valcárcelek erabiltzen duen irizpidea⁴ jarraituko dut, mugimendua hiru olatutan sailkatuz: feminismoaren lehen aldarriak Ilustrazioan hasi ziren Frantziar

³ GÓMEZ FERNÁNDEZ, Itziar, *Una Constituyente feminista ¿Cómo reformar la Constitución con perspectiva de género?*, Marcial Pons, Madrid, 2017, 27 or.

⁴ VALCÁRCEL, Amelia, *La memoria colectiva y los retos del feminismo*, CEPAL, Santiago de Chile, 2001.

Iraultzarekin batera (XVIII. mende bukaera) eta XIX. mendearen erdialdera arte iraun zuen, hiritartasuna izanik aldarri; bigarren olatuak, XIX. mendearen erdialdetik XX.aren 50. hamarkadara arte iraun zuen eta emakumeen boto eskubidea eskatzen zuen; azken olatuan egungo feminismoa egongo litzateke, eta baloreetan aldaketak eta justiziak arlo pribatua arautzea aldarrikatzen ditu.

2.1.1. Ilustrazio garaia

Lehen feministak, emakumeei eskubide zibilak ukatzen zitzaizkien, baina aldi berean, berdintasuna, askatasuna eta anaitasuna aldarri ziren iraultza liberalaren garaian kokatzen dira. Hain zuzen ere, Gizonaren eta Herritarraren Eskubideen Adierazpenean (1789) oinarritzko printzipio gisa gizonetzko guztiak eskubideetan aske eta berdina jaito eta irauten zutela aurreikusi arren (1 art.), “gizonetzko” hitza mutilezkoen baliokidea zen, ez “gizaki” hitzarena⁵ eta ondorioz, ez testu konstituzional iraultzaileek ezta beraien ondorengoek ere ez zuten emakumeen eskubideen inguruko aipamenik egiten⁶, pertsona aske eta berdinen izaera eskuratzeko beharrekoa izanik sexu maskulinoa⁷. Hala, Gizonaren eta Herritarraren Eskubideen Adierazpenak pertsona indibidualki eskubide unibertsalen subjektu izendatzeko eta pertsonen arlo pribatua (eskubideak) Estatuarengandik (botereen banaketa) bereizteko balio izan zuela esan daiteke. Egoera honen arrazoia une horretan nagusitu ziren Rousseau eta Locke bezalako pentsalarien teoria moral eta politikoak dira, izan ere, hauen arabera, emakumeak natural eta arrazionalki gutxiago ziren. Hartara, Rousseauren ustez, arlo publiko eta pribatua bereizten zituen modelo soziala sortu beharra zegoen. Lockeren arabera, aldiz, gizonetzkoetan ez bezala, zuzenbide positiboak emakumezkoen zuzenbide naturalarekin bat egiten zuen heinean, beharrezkoak ziren emakumeen menpekotasun politiko eta indibiduala⁸, hau da, hiritar aske eta autonomoa egon dadin, beharrezkoa da eremu pribatua zaindu eta zerbitzatzeko duen emakumea egotea. Konstituzionalismo eta feminismoak berdintasuna aldarrikatzen duten arren, Konstituzionalismo liberalak printzipio patriarkalari jarraituz sexuen arteko berdintasunari aipamenik egiten ez dion heinean nabaria da aldarrikapenaren eremua oso desberdina dela⁹. Edonola ere,

⁵ CUENCA GÓMEZ, Patricia, “Mujer y Constitución: Los derechos de la mujer antes y después de la Constitución española de 1978”, *Revista de Filosofía, Derecho y Política*, 8, 2008, 74 or.

⁶ GÓMEZ FERNÁNDEZ, Itziar, *Una Constituyente feminista...*, op. cit., 30 or.

⁷ VENTURA FRANCH, Asunción, *Las mujeres y la Constitución Española de 1978*, Instituto de la Mujer, España, 1999, 24 or.

⁸ CASTELLS OLIVÁN, Irene, eta FERNÁNDEZ GARCÍA, Elena, “Las mujeres y el primer constitucionalismo español (1810-1823)”, *Historia Constitucional*, 9, 2008.

⁹ BALAGUER CALLEJÓN, María Luisa, *Mujer y Constitución: la construcción jurídica del género*, Cátedra, Valencia, 2005, 55 or.

aurkako jarrera zuten emakumezko zein gizonezkoak ere agertu ziren, Sophie de Grouchy, Marie Gouze eta Nicolas de Concorcet esaterako¹⁰, baina isilarazirik zegoen ahotsa zen heinean ez zuen Rousseuren teoriak beste eragin izan.

Horrela, ba, Espainiako lehen Konstituzioa (1812), Rousseauk defendatzen zuen sisteman oinarritu zen¹¹ eta hurrengoek ere ildo beretik jo zuten, denak emakumeei eskubide zibil (jabetzarako, justizia sarbiderako, lanerako eta hezkuntzarako eskubidea) eta politikoak ukatzeagatik ezaugarritzen direlarik. Hala, sufragioa errenta batera mugatzen zenean¹², errenta hori zuten emakumeei boto eskubidea ukatzen zitzairen eta sufragio eskubidea baldintza ekonomiko eta sozialak kontuan hartu gabe gizonezko guztietara zabaldu zenean¹³ ere, eskubide honetatik baztertuak izan ziren. Alabaina, une honetan gizarte erdia eskubide honetatik kanpo geratu zen arren, sufragio unibertsala aitortu zela esan ohi da, baina ezin da unibertsaltasunaz hitz egin eskubide hauen titularrak gizonezko, zuri eta jabetza zutenak zirenean soilik¹⁴. Nolanahi ere, 1812 eta 1931 urteen artean emakumeak bazterketarekiko desadostasuna agertzen hasi ziren boto eskubidea aldarrikatuz, bere puntu gorena 1931an izanik¹⁵.

Hain justu, hiritartasun erreala egikaritzeko lehen pausoa sufragio eskubidea da, honen bidez arlo publikoan jarduteko gaitasuna aitortzen baita. Alabaina, emakumeei boto eskubidea ukatzen zitzairen heinean, beraien eremua arlo pribatura mugatzen zen eta ondorioz, euren jarduna zaintzara bideratua zegoen. Horregatik, sufragio eskubidea emakumezkoengana zabaltzea aurrera pauso handia da, beraien presentzia bi eremutan egotea ahalbidetu baitu.

2.1.2. II. Errepublika

Adierazi dugunez, feminismoaren bigarren olatuak sufragio eta militantzia politiko aktiboa izateko eskubidea aldarrikatzen zituen, Espainian lan gogorra izan zelarik benetako sufragio unibertsala ezartzea.

II. Errepublikako Konstituzioa onartu baino lehen, sufragio pasiboaren¹⁶ eremua zabaldu zen, honi esker gizonezkoek zein guraso nahiz senarraren autoritatepean ez zeuden

¹⁰ GÓMEZ FERNÁNDEZ, Itziar, *Una Constituyente feminista...*, op. cit., 31-32 or.

¹¹ *Ibidem*, 36 or.

¹² Honela aurreikusi zen 1837, 1846, 1865, 1877 eta 1878ko Hauteskunde Legeetan.

¹³ 1870, 1890 eta 1907 Hauteskunde Legeetan izan zen honela.

¹⁴ CUENCA GÓMEZ, Patricia, "Mujer y Constitución: Los derechos de la...", op. cit., 75 or.

¹⁵ VENTURA FRANCH, Asunción, "El silencio de género en el derecho constitucional: la constitución española de 1978", *Dossiers feministes*, 3, 1999, 25 or.

¹⁶ 1907ko abuztuaren 8ko Hauteskunde Legearen bidez.

emakumezko familia-buruek hautagai eta hautesle izateko aukera izanez. Hartara, 1931ko Hauteskunde Orokorretan, Espainiaren historiako lehen emakumeak izan ziren hautatuak: Victoria Kent (Partido Radical Socialista), Clara Campoamor (Partido Radical) eta Margarita Nelken (Partido socialista)¹⁷.

Sufragio aktiboa emakume ezkondueri zabaltzeko ordea, 1931ko Konstituzioa idatzi arte itxaron behar izan zen, hauei boto eskubidea aitortzeak iritzikoengatik familiaren egonkortasuna kolokan jarri zezakeela baitzeritzoten¹⁸. Hala, gehiengo alderdia ezkertiarra zen parlamentuan emakumeen boto eskubidea baldintzatu nahi zen, elizaren zama, analfabetismo tasa altu eta lan munduratzeko tasa baxuen ondorioz emakumea indar kontserbatzaileen menpe zegoela uste baitzuten eta honek Errepublikan arriskuan jartzearen ondorioz, berdintasuna ez zela inorentzat izango¹⁹, alegia arazoa ez zen emakumei botoa eskubidea aitortzea, noiz aitortzea baizik.

Borroka honetan, ezinbestekoa izan zen Clara Campoamorren ekarpena, izan ere, bere komisioko kide izaerari esker eta bere alderdiko kideen iritzia aurka 25 artikuluariko boto partikular bat tarteratu zion emakumeentzako boto eskubidea gizonentzako baldintza berdinetan eskuratuz²⁰. Horrela, ba, Palomok Patemani jarraituz sufragismoa XIX. mendeko emakumeek dikotomia publiko-pribatuaren aurka egiteko mugimendua izan zela dio²¹.

II. Errepublikako Konstituzioak aurrerapen handiak ekarri zituen, horien artean baita genero ikuspegikoak ere, izan ere, emakumei sufragio eskubidea (36 eta 53 art.) aitortzeaz gain, sexua pribilegio juridikoak aitortzeko kausa gisa erabiltzea debekatu (25 art.) zuen. Familia arloan, ezkontza zibila eta dibortzioa aitortuko dira, eta emakumei gurasotasuna aitortuko zaie. Era berean, hezkuntza sistema integratzaile, misto, laiko,

¹⁷ CUENCA GÓMEZ, Patricia, "Mujer y Constitución: Los derechos de la...", op. cit., 76 or.

¹⁸ SEVILLA MERINO, Julia, VENTURA FRANCH, Asunción, GARCÍA CAMPÁ, Santiago, "La igualdad efectiva entre mujeres y hombres desde la teoría constitucional", *Revista del Ministerio de Trabajo e Inmigración*, 67, 2007, 73 or.

¹⁹ CAPEL MARTÍNEZ, Rosa María, "Se cumplen 85 años del voto femenino en España". *IV Cumbre de Mujeres Juristas. Siglo XXI: ¿Una sociedad por fin en igualdad?* El Colegio de Abogados de Madrid, 2016. Hartua (2018/04/21): <https://www.youtube.com/watch?v=hjwXtsFAWe0>

²⁰ MONTERDE GARCÍA, Juan Carlos, "Algunos aspectos sobre el voto femenino en la II República Española: debates parlamentarios", *Anuario de la Facultad de Derecho*, 28, 2010, 269 or. 1931eko Aurreproiektuan emakumei "printzipioz" boto eskubidea aitortuko zitzaizela aurreikusten zen, baina Clara Campoamorren boto partikularrari esker moldaketa bat eman zen "printzipio" hitza alde batera utziz emakumei gizonentzako boto eskubide berdina aitortu zitzaien.

²¹ PALOMO CERMEÑO, Eva, "Conciliación (laboral y familiar)", *Euomía. Revista en Cultura de la Legalidad*, 13, 2017, 228 or.

doako eta derrigorrezkoa ezartzearekin batera, katedra askatasuna aurreikusi zuen, denak ere emakumeen egoera juridikoa hobetuz. Lan arloan berriz, emakumeei lan munduan sartzeko eta pertsona orori lanbidea aukeratzeko eskubideak aitortu ziren (33 art.), aldi berean lanbide publikoan, sexua aintzat hartu gabe, langileak beraien gaitasunarengatik kontratatuko zirela aurreikusi zen (40 art.)²².

Baina, zoritxarrez, II. Errepublikak ez zuen denbora luzez iraun eta Gerra Zibilaren etorrerak eta haren ondorengo 40 urteko diktadurak emakumeekiko ohitura eta jarreretan oinarritzko aldaketak ematea galarazi zuen. Gerraren ostean, biziraupen baldintza gogorrekin aurre egin behar izan zieten; alarguntasun, gaixotasun, kartzelaratzeko eta bestelako egoeren aurrean familia-buru gisa jardun behar izan baitzuten, egoera hauek are lasgarriagoak izanik galtzaileentzat errepresioa eta bazterketa soziala ere jasan behar izan baitzuten²³.

2.2. EMAKUMEAREN BABES JURIDIKOA FRANKISMOAN

Frankismoaren sistema politikoak altxamendu militarretik (1936) Francisco Francoren heriotzara arte (1975) iraun zuen. Ideal nazional-katolikoa garaile izatearen ondorioz, ezker alderdikoei ondorio larriak jasan zituzten eta baita bi alderditako emakumeek ere, legezko ezgaitasun iraunkorra ezarri baitzitzairen, beraien funtzio nagusia familia eta etxea zaintzea izanez. Hala, II. Errepublikan lorturiko eskubide guztiak betirako galdu zituzten; ondorioz, emakumea arlo publikotik baztertuz eta arlo pribatuan berriro ere gizonaren menpe egotera igaroz, hau da, izatez beraiei zegokien eremuan ere autonomia ukatu zitzairen²⁴. Hortaz, gizonezkoek estatuarekiko menpekotasuna zuten heinean, emakumeek estatuarekiko eta gizonarekiko menpekotasuna zuten²⁵.

Hala, frankismoa sistema autoritarioa izan arren, hasierako urteetako sistema gogor eta zorrotza izatetik malguagoa izatera pasatu zen azken urteetan²⁶. Edonola ere, gizartearen barrenetaraino sartu zen heinean indar handiko sistema izan zela deritzogu,

²² GÓMEZ FERNÁNDEZ, Itziar, *Una Constituyente feminista...*, op. cit., 54 or.

²³ CUENCA GÓMEZ, Patricia, "Mujer y Constitución: Los derechos de la...", op. cit., 78 or.

²⁴ *Homenaje a María Telo PPIINA*, ppiina, 2014ko urria. Hartua (2018/05/14): https://www.youtube.com/watch?v=w799O9_Kfwo. María Telori egin zitzaion elkarrizketa batean honela deskribatu zuen II. Errepublikatik diktadurara eginiko aldaketa "Pasar de la República a la dictadura fue un golpe muy fuerte, es como si hubiese caído un telón negro, de hierro, no se veía salida por ningún sitio".

²⁵ GAHETE MUÑOZ, Soraya, "Las luchas feministas. Las principales campañas del movimiento feminista español (1976-1981)", *Investigaciones feministas*, 8(2), 2017, 584 or.; eta CUENCA GÓMEZ, Patricia, "Mujer y Constitución: Los derechos de la...", op. cit., 78-79 or.

²⁶ JIMÉNEZ ASENSIO, Rafael, *Apuntes para una historia del constitucionalismo español*, Itxaropena, Zarautz, 1992, 150 or.

haren zantzuak egun ere nabarmenak izanik, hain zuzen ere egungo gizartearen azken eraginak bertatik eratorriak baitira.

2.2.1. FRANKISMOAREN LEHEN URTEAK (1936-1959)

1945ean Espainiarren Forua promulgatu zen, Konstituzionalismoan atal dogmatikoa izango litzatekeena. Estatuaren konfesionaltasuna adierazi ondoren hainbat eskubide jaso ziren, baina hauek bermatzeko inongo sistemarik aurreikusirik gabe²⁷.

Eremu Zibilean, familia organizazio sozialeko hiru instituzio garrantzitsuenetariko bat bilakatu zen heinean, ezkontza bakar eta banaezina zen, edozein emakumeren helburu nagusi hura izanez. Adin nagusitasuna 21 urterekin eskuratzen zen arren, emakumeek 25 urterekin bereganatzen zuten eta ordura arte ezin zuten gurasoen etxebizitza utzi, ezkontzeko zenean salbu (KZ 321 art.). Hala, gizonaren autoritatea instituzionalizatzen zen, emakumea haren etengabeko agindupean baitzegoen; lehenik, aitarenean eta ezkondu ostean, senarrarenean (KZ 57 art.). Gainera, gizona emaztearen ordezkaria zen, zenbait egintza juridikotarako (zibil nahiz merkataritza arlokoak) senarraren baimena behar zutelarik (KZ 60 art.)²⁸. Urteak igaro ahala, Kode Zibilak jasaten dituen zenbait aldaketei esker legezko ezgaitasuna gutxitzen joango da, baina demokrazian barneraturik egon arte ez dio existitzeari utziko²⁹.

Lan arloari dagokionez, Lanaren Forua³⁰ onartu zen; emakume eta haurrei gaez lan egitea debekatzeari gain, emakume ezkonduak lantegi eta fabriketatik “askatzen” zituena. Hartara, emakumea babestea helburu zuen itxura eginez eta ezkontza oinarri hartuz, eszedentzia eta derrigorrezko kaleratzeak bultzatu zituen emakume ezkonduaren menpekotasun ekonomiko eta soziala eraginez. Horrelako neurrien bidez eta baldintza kultural eta ideologikoen laguntzaz, emakumeen lana femininotzat eta okerrago balioztatuak ziren lanbideetara mugatzen zituzten. Ildo beretik, hezkuntzan ere eduki eta sexuen banaketan oinarritzen zen sistema ezarri zen. Emakumeen hezkuntza arlo pribatura bideratua zegoen eta batik bat, ama eta emazte ona izateko gaitasunak perfektionatu eta garatzera; gizonetzakoena aldiz, arlo publikora. Edukien banaketa eta hezkuntza sexista transmititzearen joerak erregimen demokratikoan barneraturik egon

²⁷ *Ibidem*, 156 or.

²⁸ CUENCA GÓMEZ, Patricia, “Mujer y Constitución: Los derechos de la...”, op. cit., 78-79 or.

²⁹ SEVILLA MERINO, Julia, *Las mujeres parlamentarias en la legislatura constituyente*, Congreso de los Diputados, Madrid, 2007, 11 eta 69 or.

³⁰ 1938ko martxoaren 9ko Lan Forua hasiera batean, guneko geografiko nazionalen jarri zen indarrean, garai hartan oraindik gerra amaitu gabe baitzegoen.

arte iraun zuen³¹. Aldi berean, hezkuntza ez formalean Falangeko Sekzio Femeninoa zegoen, emakumeak erregimenera atxikitzea helburu zuena.

Honenbestez, sistemak emakumea ez zuen eskubideak zegozkien subjektu gisa ikusten, haren jarduerak erabat sozialak zirenetara bideratuak egon behar zirelarik.

2.2.2. FRANKISMOAREN AZKEN URTEAK (1960-1975)

Mundu mailan feminismoa sortzen ari zela, Espainia diktadura batean murgildurik zegoen, feminismoaren eragina erlatiboa izanik. Hala, mugimendu gehienak profesionalak ziren eta nagusiki klandestinitatean edota erbestean zeuden organizazio politikoekin zituzten harremanak. Edonola ere, 60, 70 eta 80ko hamarkadetan aldaketak hasi ziren Espainian³².

Hain zuzen ere, 60. hamarkadatik aurrera, emakumeen egoera hobetu zuten aldaketa politiko, ekonomiko eta sozialak eman ziren, horien artean sexuan oinarrituriko edozein diskriminazio debekatzen zuen emakumearen eskubide politiko, profesional eta laneko uztailaren 22ko 56/1961 Legea³³. Honi esker, ezkontzarenatik derrigorrezko eszedentzia ezabatu zen emakumearen eremu publikoko presentzia areagotzea ahalbidetuz nahiz eta lanean jarduteko senarraren baimena izatea derrigorrezkoa izaten jarraitu³⁴.

Alabaina, aldaketak ez ziren nabarmenak eta pixkanaka barneratuak izan ziren, sistema malguagoa zen garaian oraindik ere Lege Penalek emakumea gizonaren jabetzako objektu³⁵ gisa hartzen zutelarik, haren ohore eta moral sozialaren irudi hain zuzen ere³⁶.

³¹ SEVILLA MERINO, Julia, *Las mujeres parlamentarias...*, op. cit., 11 or.; eta GÓMEZ FERNÁNDEZ, Itziar, *Una Constituyente feminista...*, op. cit., 59 or.

³² GÓMEZ FERNÁNDEZ, Itziar, *Una Constituyente feminista...*, op. cit., 58 eta 62 or.

³³ BOE núm. 175, de 24 de julio de 1961.

³⁴ CUENCA GÓMEZ, Patricia, "Mujer y Constitución: Los derechos de la...", op. cit., 81 or.

³⁵ Hala, 1973ko Zigor Kodean adulterioa (449 art.), ohekidetasuna (452 art.), abortua (441 art.), zintzotasunaren aurkako delituak (383 eta 384 art.) eta bortxaketa, lizunkeria, estrupu eta bahiketa (443 art.) bezalako delituak zigortzen ziren, azken hauek "ohorearen aurkako" delitu gisa hartzen ziren heinean, ofendituaren barkamenak edota harekin ezkontzeak delituaren erantzukizuna ezaba zezakeen, betiere barkamena ofendituaren ezkontzarekiko zela ulertu behar zelarik.

³⁶ GÓMEZ FERNÁNDEZ, Itziar, *Una Constituyente feminista...*, op. cit., 63 or.

2.3. EMAKUMEAREN BABES KONSTITUZIONALA 1978-KO KONSTITUZIOAN

2.3.1. 1975-1977 urteak

1975 urtea garrantzitsua izan zen, Francoren heriotzarekin batera, Nazio Batuen Erakundeak Emakumearen Nazioarteko Urtea izendatu baitzuen. Feministek espainiar emakumeek jasaten zuten diskriminazio egoera argitara emateko estatu mailako lehen ekitaldi feministak antolatu zituzten Madrilan (1975) *Jornadas Nacionales por la Liberación de la Mujer* eta Bartzelonan (1976), *Jornades Catalanes de la Dona* ospatuz. Horrela, ba, urte horietan emakumeei eskubideak aitortu zizkien hainbat erreforma³⁷ eman ziren, besteak beste, Kode Zibiletik emakumeei gizonezkoen lizentziaren beharra ezabatu zen³⁸.

Gainera, urte hauetan mobilizazio feministak eragin zituzten gertaera politiko garrantzitsuak eman ziren: Erreforma Politikoaren Legerako erreferenduma 1976an, 1977 urteko hauteskunde orokorrak, 1978ko Konstituziorako erreferendumak, 1979 urteko Estatuko eta Udal hauteskundeak eta nabarmentzekoa den 1977ko “Moncloako Ituna”, Espainiaren egonkortasun politiko eta ekonomikorako neurriak hartzearekin batera, emakumearekin loturiko zenbait puntu barneratu zituena³⁹.

2.3.2. 1978tik gaur egunera arte

2.3.2.1. 1978ko Konstituzioaren sorrera

Francoren heriotzarekin batera diktaduraren amaiera etorri zen demokraziari atea irekiz. Konstituzioaren sorrerak espainiar guztien eskubideen aitorpenean inflexio puntu bat suposatzeaz gain, emakumeen eskubideen aitorpenean ere eragin zuen⁴⁰.

Trantsizioan parte hartzea botere patriarkalean antolaturik zeuden alderdi politikoen bidez egin zen eta ondorioz, zaila zen emakumeak talde hauetan bermatzea eta iritzi indartsua izatea, jasaten zuten desperekidetasuna eztabaidarako objektu izatea galaraziz⁴¹. 1978-ko Gorte Konstituziogilea gizonezkoek politikan zuten monopolioaren eta emakumeek pairatzen zuten bazterketa isla zen.

³⁷ Zigor Kodean ere aldaketak egon ziren adulterioa eta ohaidetza kendu zirelarik.

³⁸ CUENCA GÓMEZ, Patricia, “Mujer y Constitución: Los derechos de la...”, op. cit., 82-83 or.

³⁹ GAHETE MUÑOZ, Soraya, “Las luchas feministas. Las principales...”, op. cit., 586-587 or.

⁴⁰ CUENCA GÓMEZ, Patricia, “Mujer y Constitución: Los derechos de la...”, op. cit., 83 or.

⁴¹ *Las Constituyentes* bideoan, 1978an parlamentari izaniko emakumeen testigantzek adierazten dute, beraien hautagaitza ustez eskuratuko ez zituzten postuetan kokatu zirela, hau da, emakumeen izenak ikusezinak izango ziren postuetan jarri ziren, baina espero baino boto gehiago eskuratzearen ondorioz hautatuak izan ziren. Hain zuzen ere, Kongresuko

Hala, egungo Konstituzioa demokraziari ateak zabaldu zizkion adostasunezko ituna dela esan arren, aipatzekoa da ez dela adostasun absolutua, aldarrikapen feministen ukapenei esker izan baitzen⁴², feminismoak sexuen arteko harremanaren erreformari uko egin behar izan baitzion hiritartasun demokratiko berri bat berridaztearen alde⁴³. Are gehiago, demokrazian hainbat urte igaro arte ez zuten berdintasuna eskuratu, adierazi dudan moduan prozesu politiko guztia gizonezkoen esku geratu zelako⁴⁴; hain zuzen ere, 1931ko Konstituzioan ez bezala, 1978ko Konstituzioaren aurreproiektuaren ez zen emakumezko Batzordekiderik izan, emakumezko bakarria Batzorde Konstituziogilean egonez⁴⁵. Beraz, emakumearen presentzia eskasak eta batez ere emakume feministenak, generoaren ikuspegiko aldarrikapenak barneratzea ekidin zuen⁴⁶.

Aipamen gisa, egungo Konstituzioaren sorreran emakumearen presentzia nabarmena izan ez arren, II. Errepublikan lorturiko boto eskubidearen aitortzea ez zen zalantzan jarri, orduko herrialde industrializatuetan emakumeek boto eskubidea aitortua baitzuten eta ondorioz, pentsaezina zen eskubide hori ukatzea⁴⁷.

2.3.2.2. Feministen aldarrikapenak

Azaldu berri dugun moduan, emakumeen presentzia eskasa izan zen Batzorde Konstituziogilean, baina erakunde feministek modu aktiboan hartu zuten parte indarren aldaketa eta Konstituzioaren modelo politiko, ekonomiko eta sozial berria helburu zuen prozesuan. Hala, eraldaketa bermatzeko asmoz, Konstituzioak barneratu beharko lituzkeen izaera orokorreko nahiz genero ikuspegiko oinarrizko puntuak jasotzen zituen

hauteskundeetara 653 emakumezko aurkeztu ziren 5.000 hautagaien artean, hautagaien %13 alegia eta horien artean %6a izan zen hautatua. Beraz, argi dago alderdi politikoetan ez zela emakumeen presentzia bultzatzen. Alabaina, presentzia eskasa izan arren eta une horretan eginiko esfortzua baloratu ez arren, atzera begiratu gero, beraien oposizioak gaur egun ditugun eskubideak lortzera eramán gaituzte.

⁴² ESQUEMBRE CERDÁ, María del Mar, "La igualdad de género en la legislatura constituyente: notas sobre la elaboración de la Constitución Española de 1978 respecto de las cuestiones relacionadas con la situación de las mujeres", 8, 2013, 41 or.

⁴³ GÓMEZ FERNÁNDEZ, Itziar, *Una Constituyente feminista...*, op. cit., 69 or.

⁴⁴ VENTURA FRANCH, Asunción, "El silencio de género...", op. cit., 26 or.

⁴⁵ Batzorde Konstituziogilean 39 batzordekideren artean UCD-ko Teresa Revilla López izan zen emakumezko kide bakarria, Konstituzioa idazteko ardura izan zutenen artean zazpi gizonezko bakarrik egonez eta inongo emakumerik ez. Horregatik Konstituzioak zazpi aita izan zituela esaten da.

⁴⁶ MONTERO, Justa, "Feminismo y ¿Procesos Constituyentes?", *Coordinadora Feminista - Federación Estatal de Organizaciones Feministas*, 2016, 1 or.

⁴⁷ VARELA, Nuria, *El voto femenino*, RTVE, 2012. Hartua (2018/04/21): <http://www.rtve.es/alacarta/videos/para-todos-la-2/para-todos-2-voto-femenino/1302589/>

dokumentu bat aurkeztu zien orduko Gorteetako presidente zen Antonio Hernández Gili⁴⁸.

Erakunde feministen esanetan, diskriminaziozko egoera batetik abiatzen ziren heinean, ez zen nahikoa berdintasun eskubide eta sexuan oinarrituriko diskriminazio debekuaren aurreikuspen soila (EK 14 art.), gainerako testu Konstituzionalean ez zelako berdintasun hori jasotzen eta beraz, Lege zehatzen beharra ere egongo zela zeritzoten⁴⁹. Horrela, ba, eskarien artean antolaketa sozialaren proposamen alternatibo bat aurkeztu zuten familia Estatuaren babes berezirik jasoko ez zuen erakunde gisa aurkeztuz, baina era berean, dikotomia arlo publiko-pribatua konpontzeko ardua botere publikoei egotziz⁵⁰. Beste helburu bat emakumeentzat diskriminatzailea ez zen dibortzio Legea onartzea izan zen. Dena den, 1981era arte ez zen dibortziorako Legerik onartu.

Gainera, hezkidetzaren bermatzea eskatu zen, baina hezkuntza askatasuna aitortu zen⁵¹.

Alabaina, emakume taldeak Gorteetan ordezkatuak izan ez ziren bezala, mugimendu feministek eginiko eskaerak ere ez ziren aintzat hartuak izan, 40 urte beranduago ere hutsune horiek salatzen direlarik⁵².

2.3.2.3. 1978ko Konstituzioan aurreikusirikoa

Konstituzioa indarrean sartzean Lege diskriminatzaileak indargabetu ziren, era berean sexuen arteko berdintasuna aurreikusten zuen araudia sortuz. Ildo honetatik, Konstituzioaren sorreratik lau hamarkada igaro ondoren, emakume eta gizonen arteko berdintasunean aurrerapenak eman dira, bien eskubide eta betebeharren parekatzea ekarriz.

Konstituzioak berdintasunari erreferentzia egiten dioten hiru adierazpen mota jasotzen ditu: balore, printzipio eta oinarritzko eskubideak. Hala, berdintasuna (1.1 art.) ordenamendu juridikoko balore nagusi gisa ezartzen da eta arau juridiko guztia mugatu, interpretatu eta aplikatzen dituen irizpidea den heinean, legezko sistemaren eta botere publikoen jardueraren legitimitatearen neurri gisa hartu behar da. Era berean,

⁴⁸ GAHETE MUÑOZ, Soraya, "Las luchas feministas. Las principales (...)", op. cit., 594 or.

⁴⁹ *Ibidem*, 591 eta 595 or.

⁵⁰ MONTERO, Justa, "Feminismo y ¿Procesos Constituyentes?", op. cit., 1 or.; eta VENTURA FRANCH, Asunción, "El silencio de género...", op. cit., 28 or.

⁵¹ GAHETE MUÑOZ, Soraya, "Las luchas feministas. Las principales...", op. cit., 595 eta 598 or.

⁵² "Posicionamiento de la Red Feminista de Derecho Constitucional ante la necesaria reforma de la Constitución", *Red Feminista de Derecho Constitucional. Mujeres en la Red. El periódico Feminista*, 1 or. Hartua (2018/04/31): <http://www.mujaresenred.net/spip.php?article2300>

oinarrizkoak dira berdintasun formal (14 art.) eta materialerako (9.2 art.) eskubidea aurreikusten dituzten artikulua ere⁵³. Berdintasun formalaren bidez, arrazoi subjektiboengatik, horien artean sexua, arau desberdinak izan eta aplikatzeko debekua ezartzen da, baina egoera desberdinei tratu desberdina emateko aukera izanik, betiere tratu desberdina ematea justifikatua, arrazionala eta proportzionala denean. Bestalde, berdintasun materialak bazterturik dauden gizataldeei laguntzeko botere publikoen parte hartze aktiboa baimentzen du akzio positibo eta neurri ez-diskriminatzaileen bidez⁵⁴. Hauxe gain, ezkontideei ezkontza berdintasun juridikoan burutzea (32 art.) eta lanerako eta behar besteko ordainsaria eskuratzeko eskubidea ere aitortzen ditu, sexua diskriminazio arrazoi gisa erabiltzea debekatuz (35 art.)⁵⁵.

Baina, aldi berean, Konstituzioak zenbait diskriminazio jasotzen ditu, nabarmenenak Koroaren (57 art.) eta noblezia tituluen ondorengotzan gizonari lehentasuna ematea izanik (62.f art.), izan ere, gizartearen orokortasunean eraginik izan ez arren, Estatuaren ikur diren heinean, talka egiten du gizartean aldarrikatzen den berdintasunarekin. Edonola ere, benetako berdintasuna eskuratzeko errealitatean gizarteari eragiten dioten jarreretan eman behar dira aldaketak⁵⁶.

Gainera, Konstituzioak darabilen hizkuntza juridiko uniformerengatik eta emakumeei artikuluetan esplizituki egiten zaien erreferentzia urriengatik, "emakume" hitza bi artikulutan bakarrik aipatzen da (EK 32 eta 57 art.)⁵⁷, ikus daiteke Konstituzioak ez duela generoaren ikuspegia aintzat hartzen. Are gehiago, eskubideen egikaritzan babes berezia behar duten taldeen artean ez du emakumea barneratzen, ezgai, heldu eta gazteak barneratzen dituen heinean⁵⁸. Hala, hutsune guztiak betetzeko asmoz Legeek berdintasunaren oinarriak ezarri arren, ez Konstituzioan berdintasuna aurreikusteak ezta Legeetan haren garapena emateak ere ez dute emakume eta gizonen arteko desparekidetasuna erabat ezabatzea lortzen⁵⁹.

Hortaz, esan daiteke, 1978ko Konstituzioak hizkuntza baztertzaila erabiliz emakumea ikusezin egiten duela, ez baitio erreferentzia zuzenik egiten eta etengabe maskulinoa

⁵³ GÓMEZ FERNÁNDEZ, Itziar, *Una Constituyente feminista...*, op. cit., 84 or.

⁵⁴ ZOCO ZABALA, Cristina, "Igualdad entre mujeres y hombres tras 40 años de Constitución española", *Revista de Derecho Político*, 100, 2017, 214 or.

⁵⁵ VENTURA FRANCH, Asunción, "El silencio de género...", op. cit., 133 or.

⁵⁶ CUENCA GÓMEZ, Patricia, "Mujer y Constitución: Los derechos de la mujer...", op. cit., 87 or.

⁵⁷ GÓMEZ FERNÁNDEZ, Itziar, *Una Constituyente feminista...*, op. cit., 82 or.

⁵⁸ CUENCA GÓMEZ, Patricia, "Mujer y Constitución: Los derechos de la mujer...", op. cit., 88 or.

⁵⁹ ESQUEMBRE CERDÁ, María del Mar, "Las mujeres ante el cambio constitucional. Algunos apuntes desde una perspectiva feminista para una "reforma constituyente" de la Constitución Española", *Atlánticas: Revista Internacional de Estudios Feministas*, 1, 2016, 188 or.

erabiltzen duelako hitz femeninoak erabil ditzakeenean. Gainera, Konstituzionalismoa bi mende baino gehiagoz garatua izan den heinean, mugimendu politiko eta joera ideologiko desberdinetako aldarrikapenak barneratu ditu, baina oso gutxi izan dira genero ikuspegikoak, feminismoa Konstituzioen “alaba ez maitatua”⁶⁰ dela ulertzera eramanez. Besteak beste, orain aztertuko dugun moduan, ez du zaintza kontuan hartzen duen modelo ekonomikorik aurreikusten eta ondorioz, ez ditu zaintzaren arloko laguntza eskubideak definitzen, ezta gizon-emakumeen zaintzaren arduren desparekidetasuna ere. Hau da, ez du “*cuidanía*”⁶¹ ideia aintzat hartzen.

2.3.3. Jurisprudentzia

Konstituzioa berdintasunean oinarritu diren arren, ez da genero ikuspegia aintzat hartzen, honek Konstituzioan aurreikusten diren printzipioekin ez duelarik bat egiten⁶². Hortaz, berdintasun formalak hutsuneak ditu eta egungo errealitate sozialak emakumea desabantailazko egoeran ezartzen duen heinean, botere publikoei dagokielarik benetako berdintasuna bermatzea ezin dezakegu berdintasun materiala dagoenik esan⁶³.

Hala, Espainiako Auzitegi Konstituzionala Carta Magnaren interpretatzaile nagusia den heinean, bertan jasotzen den balore eta printzipio nagusi den berdintasuna betetzen dela ziurtatu behar du bere ebazpenen bitartez, hau da, emakumeekiko diskriminazioa ezabatzerako bideraturiko neurriak egokiak diren erabaki behar du, berdintasun printzipioaren irismena norainokoa den, eremua zein den eta haren mugak erabakiz⁶⁴. Horregatik, Auzitegi Konstituzionalak formalki generoaren ikuspegitik dauden hutsuneei zein erantzun ematen dien aztertu nahi izan dut, bere sorreratik (1980) gaur egunera arte, sexuen arteko berdintasuna eskuratzeko emaniko ebazpenetan zein joera izan duen ezagutuz.

Alabaina, Auzitegiaren jurisprudentzia guztia aztertzea ezinezkoa denez, modelo ekonomikora eta noski, zaintzara bideraturikoa ikuskatuko dut. Dena den, aipatzekoa da generoaren ikuspegitik garrantzitsuak diren hainbat epai aztertu gabe geratuko direla,

⁶⁰ GÓMEZ FERNÁNDEZ, Itziar, *Una Constituyente feminista...*, op. cit., 160 or.

⁶¹ RODRÍGUEZ RUIZ, Blanca, “Hacia un estado post-patriarcal. Feminismo y *cuidanía*”, *Revista de Estudios Políticos*, 149, 98 or. “*Cuidanía*” hitzaren jatorria akats baten ondorioa izan zen Sevillako Centro Vecinal del Pumarejo-aren irekierarako kartelean “*ciudadanía*” beharrian “*cuidanía*” idatzi zutenean. Akatsak ordea, zentroaren izpirituarekin bat egiten zuen, auzoaren identitate eta izpirituaren babesean sortua izan baitzen.

⁶² ESQUEMBRE CERDÁ, María del Mar, “Las mujeres ante el cambio...”, op. cit., 192 or.

⁶³ VENTURA FRANCH, Asunción, “El silencio de género...”, op. cit., 29 or.

⁶⁴ BALAGUER CALLEJÓN, María Luisa, *Mujer y constitución: la construcción...*, op. cit., 21 or.

besteak beste, abortu, ugalketa lagundu edota larrialdietarako antisorgailuen inguruko hainbat ebazpen (AKE 53/1985, 212/1996 eta 145/2015 besteak beste), Zigor Kodeko 153.1 artikuluaen aurkakoa (AKE 59/2008) edota Hauteskunde Legeko Erregimen Orokorreko 5/1985 Lege Organikoko 44. bis artikuluaen aurkako auzia, azkenik hau izanik aldarri feminista egin zuen lehen epaia (AKE 12/2001). Edonola ere, aintzat hartu behar da Auzitegia gehienbat gizonezkoek osatu dutela bere sorreratik, 57 gizonezko magistratu egon baitira 6 emakumezkoren aldean. Honek ez du automatikoki generoaren ikuspegia kontuan hartu ez denik esan nahi, baina eragina izan dezakeela pentsatzera garamatza⁶⁵.

Horrela, ba, diskriminazioa zuzena nahiz zeharkakoa izan daiteke, biak ere EK 14. artikuluan debekatzen direlarik. Diskriminazio zuzena deritzo egoera berdin baten aurrean edota itxuraz berdinak diruditenen aurrean, legegileak edo legea aplikatzen dutena, pertsonaren ezaugarri batean oinarrituz eta arrazoï justifikaturik gabe tratu desberdin bat emateari; bestalde, zeharkako diskriminazioa esaten zaio, itxuraz neutrala den jarrera baten aurrean desabantaila egoera sorrarazteari⁶⁶. Hala, diskriminazio sexuala egoera berdineko edo itxuraz antzekoak direnen aurrean, sexua oinarri hartuta eta beste inongo justifikaziorik gabe tratu desberdina ematea da⁶⁷.

Hasiera batean, berdintasun eskubidea ez zen eskubide autonomo gisa aurreikusten, harreman juridiko batean oinarrituriko eskubidea zela ulertzen baitzen eta horregatik, ezin zen berdintasuna babesten zuen izaera orokorreko araurik sortu⁶⁸. Hala, Auzitegi Konstituzionalak berdintasuna abiapuntutzat hartzen zuen eta ez helburutzat, egoera desberdin guztiei ondorio juridiko berdina aplikatzen zielarik, hau da, sexu bereizkeriaren aurrean ez zuen jarrera aldatzen, sexuan oinarrituriko portaera desberdinak Konstituzioaren aurkakotzat zituelarik⁶⁹. Alabaina, joera honek diskriminazio egoerak

⁶⁵ GÓMEZ FERNÁNDEZ, Itziar, *Una Constituyente feminista...*, op. cit., 135 or.

⁶⁶ AGUILERA RULL, Ariadna, "Discriminación directa e indirecta", *Revista per a l'analisi del dret*, 1, 3 eta 9 or.

⁶⁷ STC 207/1987, de 22 de diciembre (F.2) "El sexo en sí mismo no puede ser motivo de trato desigual, ya que la igualdad entre ambos sexos está reconocida expresamente por el art. 14 de la Constitución".

⁶⁸ STC 76/1983, de 5 de agosto (F. 2.a) "La igualdad reconocida en el art. 14 no constituye un derecho subjetivo autónomo, existente por sí mismo, pues su contenido viene establecido siempre respecto de relaciones jurídicas concretas. de aquí que pueda ser objeto de amparo en la medida en que se cuestione si tal derecho ha sido vulnerado en una concreta relación jurídica y, en cambio, no pueda ser objeto de una regulación o desarrollo normativo con carácter general".

⁶⁹ STC 81/1982, de 21 de diciembre (F.2) "(...) la protección de la mujer por sí sola no es razón suficiente para justificar la diferenciación, ni es suficiente tampoco que el sujeto beneficiario de la protección sea la mujer en cuanto tal mujer, pues ello en tales términos es contrario al artículo 14 CE".

areagotzen zituen, gehien aztertzen zituen auziak gizonezkoek aurkezturiko anparo helegiteak ziren heinean⁷⁰. Hori dela eta, 80ko hamarkadaren amaiera aldera, arazoak ebazteko moduan aldaketa eman zen⁷¹, egoera desberdinei trataera desberdina ematea baimendu baitzen⁷², aldi berean axolagabetasunagatiko desberdintasunaren ideia sortu zen. Trataera desberdinak Konstituzioaren aurkakoak izan ez daitezen arrazionalak eta proportzionalak izan behar dira⁷³ eta are gehiago, sexua den bezala, Konstituzioak espreski aurreikusten duen diskriminaziorako arrazoi bat denean⁷⁴.

Hala, 1987an, gizon-emakumeen arteko desparekidetasunaz hitz egin zen lehen aldiz, historikoki gizartean barneraturik dauden jarreraren ondorioz, botere publiko eta praktika sozialek emakumea maiz desabantailazko egoeran jarri izan dutela aitortuz⁷⁵. Orduetik, botere publikoa diskriminazio hauek ezabatzen ahalegindu da akzio positibo nahiz babesleen bidez, alegia 14 artikuluan oinarrituz formalki diskriminatzaileak diren, baina

⁷⁰ Konstituzio aurretik emakumeei aurreikusten zitzaizkien onurak ziren gizonezkoen helegite arrazoia, onura hauek gehienbat lan arlokoak izanik.

⁷¹ Hainbat autoreren iritziz, STC 128/1987 ebazpena da joera berri honen abiapuntua.

⁷² STC 128/1987, de 16 de julio (F.7) "(...) la actuación de los Poderes Públicos para remediar, así, la situación de determinados grupos sociales definidos, entre otras características, por el sexo (y, cabe afirmar, en la inmensa mayoría de las veces, por la condición femenina) y colocados en posiciones de innegable desventaja en el ámbito laboral, por razones que resultan de tradiciones y hábitos profundamente arraigados en la sociedad y difícilmente eliminables, no puede considerarse vulneradora del principio de igualdad, aun cuando establezca para ellos un trato más favorable, pues se trata de dar tratamiento distinto a situaciones efectivamente distintas".

⁷³ STC 75/1983, de 3 de agosto (F.2) "Sólo le resulta posible al legislador, en adecuada opción legislativa, establecer para los ciudadanos un trato diferenciado, cuando tenga que resolver situaciones diferenciadas fácticamente con mayor o suficiente intensidad, que requieran en su solución por su mismo contenido una decisión distinta, pero a tal fin resulta indispensable que exista una justificación objetiva y razonable, de acuerdo con criterios y juicios de valor generalmente aceptados, cuya exigencia deba aplicarse en relación con la finalidad y efectos de la medida considerada, debiendo estar presente por ello una razonable relación de proporcionalidad entre los medios empleados y la finalidad perseguida, y dejando en definitiva al legislador con carácter general la apreciación de situaciones distintas que sea procedente diferenciar y tratar desigualmente, siempre que su acuerdo no vaya contra los derechos y libertades protegidos".

⁷⁴ CUENCA GÓMEZ, Patricia, "Mujer y Constitución: Los derechos de la...", op. cit., 85 or.

⁷⁵ STC 128/1987, de 16 de julio (F.5) "(...) determinadas diferenciaciones históricamente muy arraigadas y que han situado, tanto por la acción de los poderes públicos, como por la práctica social, a sectores de la población en posiciones no sólo desventajosas, sino abiertamente contrarias a la dignidad de la persona que reconoce el art. 10 de la C.E. (...) No es necesario, ante el cúmulo de datos y pruebas que suministra la historia de nuestra sociedad, hacer referencia en extenso a tales dificultades, pero su persistencia se traduce, aun hoy, e innegablemente, en una menor incorporación de la mujer al trabajo".

9.2 artikuluari jarraituz justifikatu daitezkeen mekanismoen bitartez, egoera desberdinei trataera desberdina eman die diskriminazio egoerak ezabatzeko asmoz⁷⁶.

Baina, aurrez esan bezala, diskriminazioa ez da beti zuzena eta frogatzea zailagoa izan arren, zeharkakoa ere badago. Hau da, pertsonaren sexuarekin lotura zuzena duten egoeratan oinarrituz trataera desberdina ematea (amatasuna edo edoskitzea esaterako) diskriminazioa dela ulertzen da. Diskriminazio mota honen existentziaren onarpena 1991an eman zen lehen aldiz, ospitale publiko bateko langileek lan berdina burutu arren, sexuagatik kategoria desberdinetan sailkatuta egotearen ondorioz desberdin ordaintzen baitzien⁷⁷.

Horrela, ba, hainbat dira emakumeenganako diskriminazioa ezabatzeko hartu diren neurriak, erantzunkidetasunari begira garrantzitsuenak, neurri faltsuak ezabatzea eta akzio positiboak hartzea izanik. Neurri babesle faltsuek emakumea “babesteko” asmoz menpekotasun egoeran jarraitzera bultzatzen dute, ebazpen esanguratsuenak: aita bati amei zuzendurik zegoen hartzaindegietarako diru-laguntza ukatu zitzaioneko AK 128/1978⁷⁸ edota AK 229/1992⁷⁹ ebazpenak izanik. Bestalde, akzio positiboek berdintasun erreala egikaritzea oztopatzen duten trabak ezabatzeko neurriak jartzen

⁷⁶ STC 216/1991, de 14 de noviembre (F.5) “ (...) La incidencia del mandato contenido en el art. 9.2 sobre el que, en cuanto se dirige a los poderes públicos, encierra el art. 14 supone una modulación de este último, en el sentido, por ejemplo, de que no podrá reputarse de discriminatoria y constitucionalmente prohibida -antes al contrario- la acción de favorecimiento, siquiera temporal, que aquellos poderes emprendan en beneficio de determinados colectivos, históricamente preteridos y marginados, a fin de que, mediante un trato especial más favorable, vean suavizada o compensada su situación de desigualdad sustancial”.

⁷⁷ STC 145/1991, de 1 de julio (F.2) “La prohibición constitucional de discriminación por características personales y en particular por el sexo, como signo de pertenencia de la mujer a un grupo social determinado objeto históricamente de infravaloración social, económica y jurídica, se conecta también con la noción sustancial de igualdad”.

⁷⁸ STC 128/1987, de 16 de julio “(...) diversas disposiciones han venido a establecer diferencias de trato entre hombres y mujeres en el ámbito laboral, que, aunque aparentemente resulten de índole protectora, perpetúan y reproducen, en la práctica, la posición de inferioridad social de la población femenina”.

⁷⁹ Emakumeei lanbide batzuetarako sarbidea zailtzen dieten neurriak baztertu behar zirela adierazi zuen Auzitegiak. STC 229/1992, de 14 de diciembre “El mandato de no discriminación por sexo del art. 14 C.E., consecuente al principio de igualdad de derechos entre hombres y mujeres, exige desde luego eliminar aquellas normas jurídicas que (con la salvedad del embarazo y la maternidad) aunque históricamente respondieran a una finalidad de protección de la mujer como sujeto fisiológicamente más débil, suponen refrendar o reforzar una división sexista de trabajos y funciones mediante la imposición a las mujeres de límites aparentemente ventajosos pero que le suponen una traba para su acceso al mercado de trabajo”.

dituzte eta lortu nahi den helbururako arrazionalak eta proportzionalak⁸⁰ izan behar dira, ebazpenik eredugarrienetarikoa AKE 12/2008⁸¹ izanik.

Erantzunkidetasunaren ildotik aurrerapenak eragin dituzten gurasotasun baimen, zaintza eta lan munduari loturiko ebazpenekin, ez dute jurisprudentzia sendorik eraiki, oraindik ere hutsuneak aurkitzen ditugunak⁸².

Hala, Auzitegia gizon-emakumeen betebeharren desparekotasunaren jakitun den arren, ez dago amatasunaren babesa eta aitaren erantzukizuna lotzen dituen jurisprudentziarik, haren joera nagusia amatasuna babestea izanik: haurdunaldiagatik lan kontratuen ez berritzea baliogabetu du (AKE 173/1994 eta 74/2008); langileak haurdunaldia jakinarazteko betebeharetik salbuetsi ditu eta enpresariak langilearen egoera zein zen jakin ez arren buruturiko kaleratzeak deuseztatu (AKE 92/2008 eta 173/2013); promozio profesionalerako eta lanbideen sarbiderako arazoez dihardu (AKE 182/2005 eta 66/2014); prestazioak jasotzeko kotizazioen konputua lantzen du (AKE 253/2004 eta 116/2013); eta amatasunari loturiko baimenarengatik lanpostu berri baterako izendapena egin arren hari dagozkion eskubide ekonomiko eta profesionalak ez eskuratzea aztertzen da (AKE 162/2016). Ikusi bezala, amatasuna babestuz emakumeak lan munduan barneratzera eta hauetan mantentzera bideraturik daude, baina eremu pribatua aintzat hartu gabe, hau ere arlo garrantzitsua izanik gizon-emakumeen berdintasun eraginkorra lortze aldera. Azken urteetan ordea, ebazpen batzuk eman dira zaintzaren arira, horien artean nabarmentzekoak AKE 3/2007⁸³ eta 26/2011⁸⁴ izanik.

Hartara, esan dezakegu, Auzitegi Konstituzionalak garapen jurisprudenziala izan duela gizon-emakumeen berdintasuna eskuratze aldera, justifikazio objektibo eta arrazoizkoa dagoenean tratu desberdina ematea ere onartuz. Alabaina, berdintasun erreala eskuratzeko ere publikoa garatzearekin ez da nahikoa ere pribatua ere landu behar

⁸⁰ STC 75/1983, de 3 de agosto (F.2) "(...) resulta indispensable que exista una justificación objetiva y razonable, de acuerdo con criterios y juicios de valor generalmente aceptados, cuya exigencia deba aplicarse en relación con la finalidad y efectos de la medida considerada, debiendo estar presente por ello una razonable relación de proporcionalidad entre los medios empleados y la finalidad perseguida, y dejando en definitiva al legislador con carácter general la apreciación de situaciones distintas que sea procedente diferenciar y tratar desigualmente".

⁸¹ STC 12/2008, de 29 de febrero. Gizon-emakumeen berdintasun eraginkorrerako Lege Organikoaren inguruan dihardu.

⁸² GÓMEZ FERNÁNDEZ, Itziar, *Una Constituyente feminista...*, op. cit., 148 or.

⁸³ STC 3/2007, de 15 de enero. Emakumezko langile bati 6 urteko semearen zaintzarako lan ordu murrizketa ukatzen zaio.

⁸⁴ STC 26/2011, de 14 de marzo. Gizonezko langile bati etxeko arduren banaketa parekidea burutzeko gaueko lan-txanda ukatzen zaio.

delarik, baina erantzunkidetasuna bermatzeko jurisprudentzia sendorik eraiki, orain hasi delarik arlo hauek garatzen.

3. KONSTITUZIOAREN ERREFORMA: KONTZILIAZIO ESKUBIDEA ERANTZUNKIDETASUNERANTZ BEGIRA

3.1. ERREFORMARAKO PROPOSAMENAK

Ikusi dugu urteak pasa ahala genero berdintasunaren ikuspegitik aurrera pausoak eman direla eremu publiko zein pribatuan ere, baina honek ez du erabateko parekidetasuna eskuratu denik esan nahi oraindik ere genero bereizkeriako egoera asko baitaude ezabatzeko. Hala, irabazi diren eskubideei, ez legegile ez epaile konstituzionalek, ez diezaien eskuratu duten aitortpena kendu, berme konstituzionala aitortzea proposatzen du Gómezek, hauen sailkapena indar politikoek adostasun batera iristeko duten zailtasunaren arabera eginez⁸⁵. Alabaina, autoreak babes Konstituzionala aitortuko lieken eskubideak aintzat hartuz, nire sailkapen irizpidea ondoren aztertuko dugun dikotomia publiko-pribatuaren arazora bideraturik egingo dut.

3.1.1. Arlo publikoa

Eremu publikoan garatuko liratekeen eskubideen artean hiruri aitortuko lieke berme Konstituzionala.

- Hauteskundeetan parekidetasuna bermatuko luke, Hauteskunde Erregimen Orokorreko Lege Organikoak edota ordezkari politiko gutxien kaltetuko lukeen ordezkari sistema paritarioaren terminoetan.
- Gobernu eta Administrazio organoetan -zentral nahiz autonomikoetan-, Botere Judizialeko Kontseilu Orokorrean eta Auzitegi Konstituzionalean gizon-emakumeen presentzia orekatua aurreikusiko lituzke Berdintasunaren Lege Organikoak arautzen duen terminoetan.
- Estatu Buru izateko gizonezkoen lehentasuna ezabatuko luke.

3.1.2. Arlo pribatua

Eremu pribatuari dagokionez, lau multzotan (ezkontza, amatasuna, lana eta sexualitatea) sailkatzen dituen eskubideak aurreikusten ditu:

⁸⁵ GÓMEZ FERNÁNDEZ, Itziar, *Una Constituyente feminista...*, op. cit., 166-170 or.

- Berdintasunezko ezkontza eta dibortzio askerako eskubidea aurreikusi nahi ditu. Era berean, bikote ezkonduaren arteko eskubide eta betebeharren banaketa parekidea bermatu nahi du, zaintza eta etxeko ardurei aipamen berezia eginez.
- Amatasuna babesteko beharra ikusten du eta emakumeek ez dezaten amatasunaren eta karrera profesionala garatzearen artean erabaki behar izan, botere publikoei emakumeak lan munduan eta hezkuntzan barneratu eta ordezkaritza publikoko postuetan jarduteko baliabideak jartzeko ardura ezartzeko beharra ikusten du. Honen harira eta familia babesaren printzipioarekin harremanetan, bizitza familiarra garatzeko eskubidea aurreikustea ere proposatzen du, baina familiako arduren banaketa erantzunkidea eta emakumeen merkaturatzea erraztea bermatzeko gizon-emakumeen bizitza laboral eta familiarren arteko orekaren promozioa islatuz. Gainera, guraso botere nahiz tutoretza egikaritzen duten pertsonen eskubide eta betebeharren egikaritzan berdintasuna aurreikusiko lituzke.
- Lanean emakume eta gizonei tratu eta aukera berdintasunaren aitortpena jasotzea ere beharrezkoak ikusten ditu; emakumeen lan merkaturatzea errazteko diren akzio positiboak ezingo direlarik diskriminazio gisa hartu eta era berean, beharrezkoa izango litzateke lan promozio bermatu eta soldata desberdintasuna ezabatzea.
- Genero indarkeriarik gabeko bizitza, gorputzaren gainean erabakitzeo eskubidea, eta eskubide sexual eta ugalketarakoak bermatu behar direla adierazten du.

Sailkapenarengatik eta eskubide motengatik badirudi beraien artean ez dagoela loturarik, baina sakon aztertuz gero, emakumeei hiritartasun eskubidea bere osotasunean egikaritzea galarazten dien oztopoen oinarria dikotomia publiko-pribatuan dagoela ohartzen gara, gizon “ekoizle” eta emakume “ugaltzaile”-aren banaketan alegia. Hain justu, emakumea arlo publikoan txertatzen joan ahala interes patriarkalen beharrei erantzuteko eta rolen banaketan oinarritzen den gizartea berrantolatzeo premia sortu da, berrantolaketarako beharrezkoa izanik emakumea arlo publikoan barneratzeaz gain arlo pribatuaren demokratizazioa ematea⁸⁶. Hortaz, gizon-emakumeen berdintasun eraginkorra bermatzeko oinarria dikotomia publiko-pribatuaren hausturan dagoela ulertuta, bizitza laboral eta familiarra bateragarri egiteko eskubideari berme konstituzionala aitortu diezaiokegun aztertuko dut, betiere eskubide hauen egikaritza erantzunkidetasunean oinarriturikoa izanik, izan ere, aurrerago ikusiko dugun moduan,

⁸⁶ SALAZAR BENÍTEZ, Octavio, “La dimensión Constitucional de la conciliación de la vida personal, familiar y laboral”, *Revista General de Derecho Constitucional*, 14, 2012, 3-4 or.

aldaketak eman diren arren, ez dute arazoaren jatorria den banaketa jo. Honen arrazoia kontziliazioaren esanahi anitzetan dago, izan ere, desadostasuna dago teoria feminista eta genero berdintasuneko politiken artean, azken hauek ez baitute arazoaren abiapuntua den genero ideiarene aurka egiten eta ondorioz, ez da gizon-emakumeen gizartean duten papera zalantzan jartzen. Hala kontziliazio eskubidearen hiru ikuspegi desberdin egon daitezke⁸⁷:

- Emakumeen jarduna zaintza dela ulertu eta funtzio hau betetzeko laguntza jaso behar dutela uste dutenak.
- Lanaren banaketa sexuala pixka bat eraldatu eta emakumeek zaintzaz gain etxez kanpoko lana burutu dezaketela uste dutenak. Honetarako, ama zaintzaileak zigortzen ez dituen politikak sortu behar direla deritzote.
- Gizon emakumeen papera berreraikitzen dute zaintza bien ardura izan dadin. Hartu beharreko neurriak zaintza gizon-emakumeen artean banatzera sustatzen dutenak zian behar dute, gizonak funtzio hauek betetzera bultzatuz.

Horrela, ba, gure helburua ez da emakumeen lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko baliabideak ezartzea familiako erantzukizunak emakumeen gain betikotuz, gizon-emakumeen arteko erantzukizunen banaketa parekidea lortzea baizik, horretarako bi sexuei lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko aukera berdinak eskainiz, hau da, dikotomiaren desagerpenean hiritartasunaren definizioa berreraiki behar da, sexuan oinarrituriko hiritartasuna alboratuz eta gizon-emakumeen harreman berri bat eraikiz⁸⁸.

Nabarmentzekoa da ordea, banaketarekin apurtzeko ezinbestekoa dela ordezkatzeko gaituztenen borondate politikoa, dikotomiarekin amaitzeko tresnarik garrantzitsuenak hezkuntza eta baloreen transmisioa baitira⁸⁹. Tresna nagusia hezkuntza da eta hezkidetzaren⁹⁰ bereziki; hain zuzen ere, hezkidetzaren bidez, etorkizuna eraikiko duten haurrei berdintasunaren balorea helarazten baitzaie. Edonola ere, gizarte garaikideari ere baloreen transmisioa modu transbertsalean helarazi behar litzaioke, baliabide gisa iragarki, telebista saio, etab. erabiliz. Guzti honetan ezinbestekoa da hizkuntzaren

⁸⁷ RECHE TELLO, Nuria, *La dimensión constitucional del derecho a la conciliación de la vida personal y laboral* (tesis doctoral), Universidad Miguel Hernández, Elche, 2016, 53-54 or.

⁸⁸ RODRÍGUEZ RUIZ, Blanca, "Hacia un estado post-patriarcal...", op. cit., 90 or.

⁸⁹ MARRADES PUIG, Ana, "Los nuevos derechos sociales: el derecho al cuidado como fundamento del pacto Constitucional", *Revista de Derecho Público*, 97, 2016, 233 or.

⁹⁰ GÓMEZ FERNÁNDEZ, Itziar, *Una Constituyente feminista...*, op. cit., 170 or. Gómezen iritziarekin bate eginez, hezkidetzaren hezkuntza sistemari berme Konstituzionala aitortuko nioke, berdintasunaren oinarriak haurtzarotik jartzeko.

erabilera egokia egitea ahal den neurrian hizkera femeninoa erabiliz eta ezinbestekoa denetan neutraltasunera joz.

Horretarako, “*ciudadanía-tik ciudadanía-ra*” igarotzen den hiritartasunaren ideia berria eraiki behar dira⁹¹. *Ciudadanía*” generoaren ideia aintzat hartzen duen hiritartasunarekin lotzen da, dagoeneko existitzen diren edo sexualki banatzen dituen Lege berrietan emakumea barneratzen haratago doan hiritartasuna alegia. Gizon-emakumeen arteko harreman sozialak eraldatu eta eskubideek edukia berridaztean datza, emakumeen presente izanik berdintasun erreala posible izatea eginez⁹².

3.2. KONTZILIAZIO/ERANTZUNKIDETASUNAREN ERREALITATE JURIDIKO-SOZIALA

Kontziliazioaren inguruko araudiak garapen bat izan du azken urteetan, baina azaldu berri dugun lehen bi ikuspegitik eman da. Alabaina, berdintasun erreala eskuratzeko itun soziala berridatzi beharra dago, gure helburua eskubideak hirugarren ikuspegitik bermatzea izanik.

3.2.1. Begirada bat araudi europar eta estatalari

Atal honetan nire asmoa ez da kontziliazioaren inguruko araudiaren azterketa sakona egitea, honen inguruko ikuspegi orokor bat izatea baizik, izan ere, beste autore batzuek egin duten bezala⁹³ ikerketa sakona egiteak xeheki aztertzea eskatzen du eta Gradu Amaierako Lan baterako denbora eta espazio mugak gaindituko lituzke.

Espainia Zuzenbidezko Estatu Soziala ez da hiritarren zaintzaz arduratzen, orokorrean, ugalketari loturiko auziak familiaren arlo pribatuko erantzukizuntzat hartzen dituelako eta bereziki familiako emakumeena, alabaina aurkitzen ditugun xedapen gutxi horiek gurasotasunarekin loturik daude. Nahiz eta erantzunkidetasunaren ikuspegiko kontziliazioaren aldarriak, 70ko hamarkadan izan bere jatorria⁹⁴, eskaerak legedietan

⁹¹ IGAREDA GONZÁLEZ, Noelia, “El derecho al cuidado en el Estado Social de Derecho”, *Anuario de Filosofía del Derecho*, 18, 2012, 195 or.

⁹² *Idem*.

⁹³ Araudien azterketa sakona Nuria Reche Tellok egin du, bereziki 65-187 orrialdeetan landu duelarik.

⁹⁴ SALAZAR BENÍTEZ, Octavio, “La dimensión Constitucional de la...”, op. cit., 3 or. 1978ko Espainiar Konstituzioan emakumeek historikoki jasan duten diskriminazioari aipamenik egin ez arren, genero ikuspegiko aurrerapenak 80ko hamarkadatik aurrera hasi ziren, nagusienak azken hamarkadakoak izanik. Guzti hau mugimendu feministaren presio, alderdi politikoen aldarri eta Zuzenbide Komunitarioaren helburu nagusienetarikoa genero berdintasuna izateari esker lortu zen.

barneratzean genero ikuspegia aintzat ez hartzearen ondorioz ezerezean geratu ziren. Edonola ere, oraindik aurrerapenak emateko egon arren, azken hamarkadetan gizartean irabazi duen garrantzi soziala dela eta garapen juridiko handia izan du⁹⁵⁹⁶.

Egun kontziliazioaren arloan indarrean dagoen legediari erreparatuz eta zehazki Europar Batasunean izan duen trataera juridikoari begira, arautzeko esfortzuak etengabeko aurrerapen eta atzerapenak jasan ditu⁹⁷. Hala, arau gehienek *soft law* izaerako instrumentuak direla ohartzen gara, neurriei eraginkortasun mugatua aitortuz eta zigortzeko gaitasuna ez izanik⁹⁸, indarrean dauden araudien artean honakoak nagusituz: ordaindutako amatasun baimena duten emakume langileen eskubideak babesten zituen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna⁹⁹ (1966); estatu kideei kontziliazio laboral eta familiarrean eragina izan dezaketen legeak sortu edota politika eta ekintzak aplikatzean transbertsalitate printzipioa aplikatu eta helduen zaintza eta atentzio zentroak sortzeko ardura ezartzen dieten 2002ko irailaren 23ko Europar Parlamentu eta Kontseiluko 2002/73/CE Zuzentarauak; enplegu eta okupazio arloan gizon-emakumeen arteko aukera eta tratu berdintasuna aurreikusten dituen 2006ko uztailaren 5eko Europar Parlamentu eta Kontseiluko 2006/54/CE Zuzentarauak; eta lanera ez joatea ezinbesteko arrazoi gisa aitortuz aitatasuna eskubide indibidual eta besterenezin bezala aurreikusten duen Kontseiluko 2010eko martxoaren 8ko 2010/18/UE Zuzentara¹⁰⁰.

⁹⁵ IGAREDA GONZÁLEZ, Noelia, “El derecho al cuidado...”, op. cit., 186 or.; eta RECHE TELLO, Nuria, *La dimensión constitucional del derecho...*, op. cit., 796 or.

⁹⁶ RUIZ-RICO RUIZ, Catalina, “El derecho constitucional a conciliar la vida laboral, familiar y personal”, Tirant lo Blanch, Valencia, 2012, 16 or. Zuzenbideak lana eta familia bateragarri egiteko zuen interes eza, gizarteak eta enpresak arlo honetan zuen axolagabekeriaren isla zen; politikak ere gaur gutxira arte ez duelarik kontziliazioa lantzeko neurririk bultzatu. Horregatik, kontziliazioaren gaineko kultura politiko eta sozial ezak haren garapen juridikoa oztopatu du, zuzenbidea errealitatearen isla izanik instrumentu eraldatzailea izan beharrean.

⁹⁷ RECHE TELLO, Nuria, *La dimensión constitucional del derecho...*, op. cit., 796 or.

⁹⁸ SALAZAR BENITEZ, Octavio, “Género, poder y ciudadanía”, *Cuadernos Manuel Giménez Abad* (Extra 5), 66, 2017, 64 or.

⁹⁹ MARRADES PUIG, Ana, “Los nuevos derechos sociales...”, op. cit., 211 or. Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna izan zen bizitza duin baterako beharrezkoak ziren eskubideak aitortzen hasteko abiapuntua. Honen arabera, gizakia askea izango da bere eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak, eskubide zibil eta politikoez bezala gozatu dezakeenean.

¹⁰⁰ PALOMO CERMEÑO, Eva, “Conciliación (laboral y familiar)”, op. cit., 230 or.; RUIZ DE LA CUESTA FERNÁNDEZ, Soledad, eta BAJO GARCÍA, Irene, “Conciliación de la vida familiar y laboral”, *Feminismo/s*, 8, 2006, 139 or.; eta GIL RUIZ, Juan María, “Crisis del Estado de Bienestar y desafíos del siglo XXI: dualismo vital y brecha ciudadana”, *Revista Vasca de la Administración Pública. Herri-Ardularitzako Euskal Aldizkaria*, 109, 2017, 139 or.

Barne legediari dagokionez, Espainiako ordenamendu juridikoak ez du bizitza laboral, familiar eta pertsonala uztartzea helburu duen legislazio osorik, eskubide honen edukia lege desberdinetan jasotzen delarik. Hartara, hutsuneak egon arren kontziliazioari dagokion araudiaren garapena eman da, Lege nagusiak lan eta familia bizitza bateragarri egiteko azaroaren 5eko 39/1999 Legea eta Emakume eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa izanik¹⁰¹. Lehena amatasun baimena besterengarri eginez familiako erantzukizunen arduradun gisa aita barneratzen ahalegintzen da lehen aldiz. Bigarrenarenak berriz, gizon-emakumeen lanerako aukera berdintasuna izanik helburu kontziliazio pertsonal eta laboraleko eskubideak bultzatu nahi ditu. Guzti honetan, erantzunkidetasunak balio transbertsal bat eskuratzen du¹⁰².

Bloke Konstituzionalari erreparatuz, azaldu bezala, Espainiar Konstituzioan ez da kontziliazioa babesteko xedapenik jasotzen berdintasuna modu orokorrean babesten duelarik.

Autonomia Erkidegoei begira ordea, zenbait Estatututan, modu eta neurri desberdinetan, lana eta familia bateragarri egiteko eskubidea aurreikusten da, haren oinarritzko elementu gisa erantzunkidetasuna jaso. Dena den, nabarmentzekoa da, eskubide hau aurreikusten duten Estatutuak azken hamarkadetan izan direla erreformatuak¹⁰³, aldaketarik izan ez dutenek ez dutelarik honelako eskubiderik babesten¹⁰⁴.

Zuzenbide konparatuari dagokionez Espainiaren antzeko egoerarekin egiten dugu topo. Hauetan ere, kontziliaziorako eskubidea araudi askoren artean banatzen da, normalean, legeen helburua lanaren eta familiarren babesera zuzendua egonez eta zaintza emakumeei egozten zaien ardura izanik. Erantzunkidetasuna ordea, zintzilik dagoen gaia da; amatasunaren babesa gehien landu den arloa izanik gutxi dira aitatasuna babesten duten mekanismoak, hala egiten denetan amatasunari eskaintzen zaion babesarekiko baino murrizagoak izanik. Hala ere, iparraldeko herrialdeak bezalako

¹⁰¹ PALOMO CERMEÑO, Eva, "Conciliación (laboral y familiar)", op. cit., 230 or.

¹⁰² RECHE TELLO, Nuria, *La dimensión constitucional del derecho ...*, op. cit., 798 or.

¹⁰³ Valentziako Komunitateko (apirilaren 10eko 1/2006 LO), Balearretako (otsailaren 28ko 1/2007 LO), Kataluniako (uztailaren 19ko 6/2006 LO), Andaluziako (martxoaren 19ko 2/2007 LO), Aragoiko (apirilaren 20ko 5/2007 LO), Gaztela eta Leongo (azaroaren 30eko 14/2007 LO) eta Extremadurako (martxoaren 23ko 01/2011 LO) Estatutu Autonomikoak.

¹⁰⁴ Euskal Autonomia Erkidegoari aipamen berezia eginez, bertako Autonomia Estatutua abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa dela kontuan izanik, argi dago ez duela erreformarik jasan eta ondorioz, ez duela kontziliazio eskubiderik aurreikusten, haren garapena Lege bidez ematen delarik, garrantzitsuena lan eta familia bizitzaren kontziliaziorako laguntzen ekainaren 29ko 177/2010 Dekretua izanik.

salbuespenak ere badaude, gurasotasun baimen ordaindu, berdin eta besterenezinak dituztenak¹⁰⁵.

Honenbestez, Espainian erantzunkidetasunaren modeloa sustatzeko araudia garatzen den bitartean, zuzenbide komunitarioan anbiguotasunez arautzen den eskubidea da, estatu kide bakoitzari erabakitze aukera utziz, baina era berean, legedia nazionala sortu eta aplikatzerakoan kontuan hartu beharreko gutxieneko irizpide batzuk ezarriz¹⁰⁶. Alabaina, kontziliazioaren ikuspegitik eraginkorrak diren arauak desberdintasun sexualean oinarritzen ez direnak diren bitartean, egun indarrean dauden eta bultzatzen diren instrumentu juridikoek arlo produktiboa garatzen dute ugaltzailearen kaltetan¹⁰⁷, hau da, emakumeek hiritartasun aktiboa gizonezkoen baldintza berdinetan egikaritu dezaten gizonezkoak ezaugarritzen diren hiritar independentera egokitu behar dute, baina emakumezkoen menpekotasun irudia alboratu gabe¹⁰⁸. Ondorioz, emakumea lan munduan txertatzeaz gain arlo pribatuko ardurak egozten baitizkie lanaldi bikoitza ezarriz.

3.2.2. Kontziliazioaren errealitate soziala

Argi dago indarrean dauden neurriek gizartearen antolakuntzan eragiten dutela eta Espainia gizon-emakumeen arteko rol banaketarengatik ezaugarritzen den heinean lanaren banaketa sexuala eragiten du gizon-emakumeen denboraren erabilera kualitatiboki eta kuantitatiboki desberdin izatera eraginez¹⁰⁹.

Horregatik, neurrien eragin erreala ikusteko, Espainiar Gobernuak argitaratzen¹¹⁰ dituen datuei erreparatu diegu. Hala, estatistiken arabera, emakumeen hezkuntza maila

¹⁰⁵ RECHE TELLO, Nuria, *La dimensión constitucional del derecho...*, op. cit., 801 or.

¹⁰⁶ LOUSADA AROCHENA, José Fernando, *El derecho fundamental a la igualdad efectiva de mujeres y hombres*, Valencia, Tirant lo Blanch, 2014, 391-392 or.

¹⁰⁷ LARRAÑAGA SARRIEGUI, Mercedes, y ECHEBARRÍA MIGUEL, Carmen, "Actividad laboral femenina en España e igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres", *Revista del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales*, 55, 2004, 74 or.

¹⁰⁸ RODRÍGUEZ RUIZ, Blanca, "Hacia un estado post-patriarcal...", op. cit., 97 or.

¹⁰⁹ RUIZ DE LA CUESTA FERNÁNDEZ, Soledad, eta BAJO GARCÍA, Irene, "Conciliación de la vida...", op. cit., 133 or.

¹¹⁰ Estatuko egoera aztertzen ari garen heinean, baliatu ditugun datuak gobernuak eskainirikoak dira. Hala ere, badira ikerketa hau burutu duten beste hainbat erakunde, Emakunde esaterako. Hartua (2018/03/08): <https://www.mecd.gob.es/servicios-al-ciudadano-mecd/estadisticas/educacion.html>; <http://www.inmujer.gob.es/MujerCifras/EmpleoPrestaciones/MercadoTrabajo.htm>; <http://www.empleo.gob.es/es/estadisticas/anuarios/2016/index.htm>; <http://www.inmujer.gob.es/MujerCifras/EmpleoPrestaciones/InactividadCambiosEmpleo.htm>; eta <http://www.empleo.gob.es/es/estadisticas/contenidos/anuario.htm>

gizonezkoena baino altuagoa da, 2014-2015 ikasturteko erregimen orokorreko hezkuntza amaitu zutenen artean gizonezkoak emakumezkoak baino %1.33 gutxiago baitira. Are gehiago, 2015-2016 ikasturtean, unibertsitate mailako hezkuntzan, 170.385 (%58,02) izan ziren gradu edo lizentziatura amaitu zuten emakumezko ikasleak, 123.260 (%41.97) gizonezkoren aldean. Alabaina, 2016an, %21,38 ziren langabezian zeuden emakumezkoak, gizonezkoak %18,12 izanik. Hauen artean, 437.000 emakumezko ziren lana ez bilatzeko haurrak eta gaixorik dauden familiartekoak zaindu beharra arrazoitzen zutenak gizonezkoak 27.000 izanik.

lido beretik eta 2016an, amatasun prestazioa 273.032 (%97,95) emakumek eskatu zuten, gizonezkoak 5.706 (%2,05) izanik. Aitatasun prestazioa berriz, 245.597 gizonezkoek eskatu zuten, lehen aldiz 2007an onartu zenean 173.161 izanik eskariak. Era berean, haurra zaintzeko eszedentzia eskatu zuten emakumeak 37.531 (%92,63) izan ziren 2.986 (%7,36) gizonezkoren aldean; bestalde, 2006an 30.052 (%96,08) izan ziren eszedentzia eskatu zuten emakumezkoak, gizonezkoak 1.223 (%3,91) izanik. Familiartekoak zaintzeko eszedentziaren eskaria berriz, 8.421 (%84,04) emakumek egin zuten eta 1.599 (%15,95) gizonezkoren aldean, 2006an emakumezkoak 3.336 (%84,88) izanik eta gizonezkoak 594 (%15,11).

Hain zuzen ere, familia eta lana uztartzera bideraturiko politikak gizartea antolatzen den lan eta bizitza pertsonaleko denboraren deskoordinazio eta inkoherentzia arazoa ebatzi nahi dute. Alabaina zaintza emakumeen arazotzat hartzen dute automatikoki, deskoordinazio emakumeen arazo bilakatuz gizartearen arazo bilakatu beharrean. Hori dela eta, zenbait araudik gizon-emakumei neurri berdinak bideratu arren, orokorrean Lege hauen aplikazioak erakusten digu gizarteak emakumei zuzenduriko neurriak direla ulertzen duela onuradunak gizonezkoek ere badirela ohartzen direnak gutxi izanik¹¹¹. Hartara, eskaria egiten duten gizonezkoen tasa igo arren, hazkundea ez da nabarmena emakumeenak nagusi izaten jarraitzen duelarik, hau da, ikus daiteke orain arteko neurriak ez direla eraginkorrak erantzunkidetasuna bultzatze aldera kualitatiboki nahiz kuantitatiboki emakumeek denbora gehiago eta kalitate gehiagokoak eskaintzen baitiote eremu pribatuari. Izan ere, denbora kuantitatiboan emakumeek zenbateko orokor batean eta bizitza osoan zehar, etxeko eta etxez kanpoko ardurei eskaintzen dien denbora gizonezkoek eskaintzen diena baino altuagoa da, emakumeek etxez kanpoko ardurei gizonezkoek baino denbora gutxiago eskaini diezaioketen arren, etxeko lana ez dutelako inoiz alboratzen. Denbora kualitatiboan berriz, gizonezkoaren lan denboraren banaketa modu linealean egiten dute, gehien bat etxez kanpoko lanean pentsatuz.

¹¹¹ IGAREDA GONZÁLEZ, Noelia, “El derecho al cuidado...”, op. cit., 191 eta 201 or.

Emakumeenean aldiz, etxez kanpoko lana eta etxeko lan denbora tartekatua da, zenbaitetan aldi berean ere burutzen dituelarik¹¹². Baina, aldi berean, orokorrean eskariak gora egiten dutela ikusirik sozialki garrantzi hartzen ari den eskubidea dela ohartzen gara.

Hortaz, gizon-emakumeei neurri desberdinak zuzentzearen ondorioz eta berdinek direnetan emakumeei bideraturikoak direla pentsatzeagatik, lanaren banaketa sexualak indarrean jarraitzen du, emakumeak bi eremutan jardunez.

3.3. KONTZILIAZIO ESKUBIDEAREN IZAERA JURIDIKOA

Bigarren Mundu Gerraren osteko Zuzenbidezko Estatu Sozialen Konstituzioetan aurreikusten diren eskubide sozialek ez dira beti oinarrizko eskubide izaera. Hain zuzen ere, eztabaidagarria da eskubide hauen izaera zein den, hauen oinarrizko eskubide izaera eztabaidagarria da, testu konstituzionalek legegile eta botere publikoen printzipio gidari gisa aurreikusten baitituzte eta ondorioz, betebeharrak juridikoak baino gehiago etorkizuneko erantzukizun politikoak direla ulertzen da, galdagarritasun maila baxuagoa dutelarik ez baitira anparo helegitearen bidez babestu¹¹³.

Hala, Espainiar Konstituzioko, I Tituluko, bigarren Kapituluaren oinarrizko eskubideak zerrendatzen dira, baina ez da zerrenda mugatua, EK 10.1 artikuluan pertsonen duintasun eta garapen askeari loturiko eskubideak barneratzeko aukera zabalik uzten baita. Eskubide berriak barneratzeko bi sistema desberdin aurreikusten dira; lehena, Konstituzioa erreformatuz eta bigarrena, EK 10.1 eta 10.2 artikuluen interpretazio jurisprudenziala eginez¹¹⁴. Hain zuzen ere, bigarren sistema hau da lana eta familia bateragarri egiteko eskubideari oinarrizko eskubide izaera aitortzeko erabiltzen dena¹¹⁵.

Bada hamarkada bat Auzitegi Konstituzionalak kontziliazio eskubideari hedadura Konstituzionala aitortzen diola EK 14 eta 39 artikuluen irakurketa bateratua eginez, joera honen aitzindariak AK 3/2007 eta 26/2011 ebazpenak izanik. Hain zuzen ere, interpretazio honen arrazoia, batetik botere publikoek familia, amatasuna eta filiazioa babestu behar izatean eta bestetik, guraso erantzukizunak betearaztean oinarritzen da,

¹¹² LOUSADA AROCHENA, José Fernando, *El derecho fundamental a la...*, op. cit., 287-288 or.

¹¹³ IGAREDA GONZÁLEZ, Noelia, "El derecho al cuidado...", op. cit., 199 or.

¹¹⁴ ÁLVAREZ CONDE, Enrique, y TUR AUSINA, Rosario, *Derecho Constitucional*, Tecnos, Madrid, 2015, 247 or.

¹¹⁵ Hauetan, Auzitegi Konstituzionalak oinarrizko eskubide izaera espresua aitortu ez arren, berdintasun eskubide, diskriminaziorako debeku (EK 14 art.) eta familia babeserako eskubidearekin (EK 39 art.) harremanetan zegoen heinean hedadura konstituzionaleko eskubidea zela aitortu zuen.

guzti hau berdintasun printzipio eta diskriminaziorako debekua errespetatuz burutu behar baitute.

Alabaina, botere publikoek kontziliazio eskubiderako duten betebeharrak konstituzionalak begira, eskubidearen dimentsio konstituzionala arlo publiko eta lan arloan aitortu arren, Auzitegiak zailtasun gehiago du eskubide honen balioa lan arloan aitortzean, izan ere, arlo publikoan harremana norbanako eta botere publikoaren artekoa den heinean oinarritzko eskubideek eraginkortasun bertikala dute; lan arloan aldiz, hirugarrenen arteko harremanekin egiten dugu topo eta beraz, oinarritzko eskubideek modu horizontalean dute eraginkortasuna¹¹⁶. Horrela, ba, arlo publikoan kontziliazio eskubideari dagokion hedadura ematen ahalegintzen den bitartean, lan arloan kontziliazio eskubidearen esanahiaren edukia lan jurisdikziora helaraziz eta eduki konstituzionalaren hedadurari buruzko ezjakintasunari amaiera emanez konformatzen da. Hau da, sektorearen arabera ematen den kontziliazio eskubidearen garapen desberdinak eskubidearen zurruntasun eza erakusten du, sektore berdinean ere desberdintasunak nabarmenak izanik (ordezko, aldi baterako, bitarteko eta behin-behineko langileen artean esaterako)¹¹⁷.

Jarrera honen ondorioz, berdintasun eraginkorra aurrera eramateko aurreikusten diren estrategia posibleez eztabaidatzen da. Lehenengoari jarraituz, emakumea eremu pribatuko hiritartasun pasibora atxikiz hiritartasun aktiboan sartzeari baldintzatzen dien generoaren eraikuntzarekin apurtu behar da, hiritartasun aktiboa eskuratzea zailtzen duten oztopoei jaramonik egin gabe eta berdintasun formala edo tratuzko berdintasuna sustatuz. Bigarrenaren arabera berriz, emakumea arlo publikoan egotea eragozten duten egiturazko trabengatik konpentsatua izan behar da juridikoki eta honetarako, trabei aitortpen juridikoa aitortu behar zaie hiritartasun aktiboaren arazoa sozializatuz. Egun, bigarren estrategia jarraitzen da, hau da, emakumeen berdintasun eraginkorra galarazten duten oztopoen kontzientzia hartzen da hauek ezabatzeko¹¹⁸.

¹¹⁶ RUIZ-RICO RUIZ, Catalina, "La problemática Constitucional del derecho a conciliar la vida laboral, familiar y personal", *Revista General de Derecho Constitucional*, 14, 2012, 6 or. Honen arazoia enpresa askatasunerako nahiz hitzarmen kolektiborako bezalako eskubideek kontziliazio eskubidea mugatzen dutela da; lehenengoak, enpresaren antolaketak kontziliazio eskubidearen egikaritzan eragiten duelako eta bigarrenak, kontziliaziorako eskubide indibiduala mugatu dezakeelako.

¹¹⁷ RUIZ-RICO RUIZ, Catalina, "El derecho constitucional...", op. cit., 60 or.

¹¹⁸ RODRÍGUEZ RUIZ, Blanca, "La dimensión Constitucional de la conciliación de la vida familiar y laboral, o de la dimensión doméstica de la ciudadanía", *Revista española de Derecho Constitucional*, 103, 365-366 or.

3.3.1. Zergatik aurreikusi kontziliazio eskubideak oinarrizko eskubide autonomo gisa eta ez berdintasun printzipio eta diskriminaziorako debekuaren proiektzio gisa?

Oinarrizko eskubideak EK 1.1. artikuluan aurreikusten diren balore nagusien proiektzio edo zehaztapenak dira, ezinbestez izaera kontingenteko interpretazioa izan behar dutenak eta uneoro nahiz leku guztietarako baliogarri izango ez direnak. Hartara, oinarrizko eskubide baten aurrean. Aitortza honek beste eskubideen gaineko nagusitasuna eraginez eta bere eskubide subjektibo izaera areagotuz ere, ordutik aurrera Auzitegietan zuzenean jarri ahal izango baita akzioa, legegilearen aurrean aurkatua izan ahalko da eta babes juridikzional zehatz bat izango du¹¹⁹.

Hartara, oinarrizko eskubide baten aurrean gaude pertsona bat pertsona izatea hutsagatik eta bere duintasunarengatik dagokion eskubideak direnean. Hala, eskubide sozialei oinarrizko izaera aitortzeko, beharrezkoa da hiritarren oinarrizko behar bati erantzutea, behar hauek asetzen ez diren bitartean pertsona autonomo, hiritar aktibo eta gutxieneko duintasuna izatea galarazten baita¹²⁰.

Lana eta familia bateragarri egiteko eskubidea eskubide soziala den heinean, neurri handiago zein txikiagoan, langilearen bizitzako alderdi desberdinekin harremanean dauden hainbat eskubide eta printzipio sartzan dira jokoan, horien artean: giza duintasun eta pertsonalitatearen garapen askerako printzipioa (EK 10.1 art.); berdintasun eta sexu/generoagatik diskriminatzeko debekuaren printzipioa (EK 9.2 eta 14 art.); familia babesteko eskubidea (EK 39, 40 eta 50 art.); intimitate pertsonal eta familiarerako eskubidea (EK 18.1 eta 18.4 art.); lanerako eskubidea (EK 35.1, 40.1 eta 40.2 art.); osasuna babesteko eskubidea (EK 15, 40.2 eta 43.1 art.); formaziorako eskubidea (EK 27, 35.1 eta 40.2 art.); ideologia, erlijio eta kultu askatasunerako eskubidea (EK 16 art.). Honenbestez, kontziliazio eskubidea ezin da historikoki ulertu den bezala berdintasun eskubide eta diskriminaziorako debekuaren printzipioaren, eta familia babesteko eskubidearen interpretazio murriztua eginez emakumeek zaintzarako duten eskubide gisa hartu, ulerkera garaikidearekin bat eginez, eskubidearen interpretazio zabala egin behar da bizitza pertsonala ere oinarrizko elementu gisa barneratuz langileen bizitza aktiboak denbora luzeago bati eragiten baitio¹²¹. Hala, kontziliazioaren esanahian bizitza pertsonala barneratzeak arazoa sozializatzen eta elkarbizitzarako oinarrizko balore gisa

¹¹⁹ ÁLVAREZ CONDE, Enrique, y TUR AUSINA, Rosario, *Derecho...*, op. cit., 247 or.

¹²⁰ IGAREDA GONZÁLEZ, Noelia, "El derecho al cuidado...", op. cit., 200 or.

¹²¹ Hain zuzen ere, 3/2007 LO-ak bizitza pertsonalaren alderdia ere aurreikusten du lana eta familia bateragarri egiteko eskubide gisa.

ulertarazten lagunduko luke, orain arte emakumeen arazo eskusibotzat hartu izan baita¹²²¹²³.

Alabaina, espainiar araudiaren ikuspegitik kontziliazio eskubidea ez dela espresuki Konstituzioan aurreikusten, baina interpretazio hau bereziki murriztailea izango litzateke bi arrazoiengatik; batetik, oinarrizko eskubideen izaera ebolutiboa ukatuko lukeelako, Europar Batasuneko araudiak oinarrizko eskubide izaera aitortu dienean eta espainiar ordenamenduarentzat araudi hauek aginduzko izaera dute eta bestetik, kontziliazio eskubidearen funtsa ez litzatekeelako gizon-emakumeen berdintasun printzipio eta familiaren babesean oinarrituko, hauek oinarrizko eskubideak izanik¹²⁴.

Alabaina, araudi europar eta nazionalak nahiz auzitegiek kontziliazio eskubidea EK 14 eta 39 artikuluen irakurketa bateratuaren proiektio gisa interpretatzen dute eta ez eskubide autonomo gisa; ondorioz, eskubide honen hedadura mugatua da eta legezko atzerapausoak jasaten ditu interpretaziorako aukera ematen duelako. Gainera, 3/2007 LO-ko 44 artikuluan oinarrituz lan eta familiaren bateragarritasunerako sorturiko zenbait eskubidek zailtasunak dituzte haren erabilera eraginkorrean. Hala, Auzitegiek eskubidearen interpretazio prozesua itxitzat ematean, proposamen berriak txertatzea ukatzen da, lanarekin loturiko zenbait promozio eta bermeetan atzerantz eginez eta datozen urteetan Auzitegiak doktrina nekez garatuko duenez, eskubide hauen indartze juridiko eta bermea eskubideak Konstituzioan txeratuz lortuko litzatekeela. Oinarrizko izaera aitortuz gero, eskubideen legezko garapenean interpretazio berme handiagoa eskaintzeaz gainera, zehaztugabeko beste zenbait lan harremaneko eskubideren eraginkortasuna bermatzea ere eragiten du¹²⁵.

Nolanahi ere, kontziliazio eskubideari oinarrizko eskubide izaera aitortzeak ez du orokorrean beste eskubide konstituzionalen aurrean nagusitzen denik esan nahi, ezta enpresa askatasunaren eskubidearen aurrean ere; are gehiago, oinarrizko eskubidea aitortzeak gainerako eskubide konstituzionalen maila berean kokatzea esan nahi du eta beraz, bere aplikazioa gatazkan dauden eskubide konstituzionalen oinarrizko edukia

¹²² RECHE TELLO, Nuria, *La dimensión constitucional del derecho...*, op. cit., 770 eta 776 or.

¹²³ RUIZ-RICO RUIZ, Catalina, *“El derecho constitucional...”*, op. cit., 103-104 or. Arazoaren sozializazio faltak, kontziliazio eskubidearen kulturaren eragiten du, eskubidea egikaritzen dutenek eskubidearen berezko izaera den lana eta familiako erantzukizunak betetzeko pertzepzioa izan beharrean fede txarrez eta abusuz jarduten dutela ulertzen delako. Alabaina, interpretazio hau zuhurtziaz burutu behar da kontziliazio eskubidearen erabilera legitimoa behar baino gehiago ez murrizteko. Horregatik, kontziliazioak behar dituen erantzun juridikoez gain, eskubide hau gizartean sendotzen lagunduko duen heziketa eta formazioa behar da.

¹²⁴ LOUSADA AROCHENA, José Fernando, *El derecho fundamental a la...*, op. cit., 398 or.

¹²⁵ RECHE TELLO, Nuria, *La dimensión constitucional del derecho...*, op. cit., 766-768 or.

errespetatzeko teknikaren bidez egin behar dela, legegileak legezko arruntaren interpretazioan beste eskubide konstituzionalen aurrean gailenduko dela adierazten duenean salbu¹²⁶. Hain justu, oinarrizko izaeraren aitortzeak askatasun (EK 17 art.), berdintasuna (EK 14 eta 9.2 art.) eta pertsonalitatearen garapen askerako eskubidearen egikaritzea eraginkorra bermatuko litzuke Estatuaren parte hartzean eta ez pertsonen eremu pribatuko eta beraien askatasun eta erabakien lege kanpoko injerentzia¹²⁷.

Edonola ere, badirudi, ez dagoela doktrina bateraturik, izan ere, zenbait autoreren iritziz, biziaren laborala eta familiarra bateragarri egiteko eskubideak, historikoki eman zaion berdintasun printzipio eta diskriminaziorako debeku, eta familiarren babeserako eskubidearen edukia osatzen du. Bestalde, beste autore batzuen ustez, gizon-emakumeen tratua eta aukera berdintasunean oinarrituz familiarren erantzukizunak diskriminaziorako kausa gisa hartzea debekatzen duen eskubide autonomoa izan beharko litzateke. Horregatik, auzi honen inguruko autore desberdinen argudioak aztertuko ditugu:

Salazar Benítezen esanetan, lana eta familia bateragarri izateko eskubidea Estatu Sozialaren helburua da; hori dela eta, gizon-emakumeen alderdi publiko eta pribatua harmonizatzea ahalbidetzen duten neurriak diren heinean, hiritartasuna modu eraginkorrean egikaritzeko beharrezkoak diren eskubide sozialak dira. Hala, AKE 26/2011 ebazpenarekin bat eginez, berdintasun eskubide eta diskriminazio debekuaren proiektioa da, haren gaineko fundamentu konstituzionala eraikitzea posible izanik berdintasun eskubidea, hura egikaritzea ekiditen duten oztopoak ezabatu eta familia babesteko eskubideetan oinarrituz. Hala, kontziliazioari eskubide autonomoaren izaera aitortzeak, botere judizialari eskubideen bermean indarra eskainiko lioke, izan ere, hala egin ezean, printzipioaren eraginkortasunerako ezinbestekoak izango dira berdintasun printzipio eta diskriminazio debekuekin lotura izatea, epailearen jarrera eta lege baten garapen eta aurrekontuen baliabideak¹²⁸.

Ilido beretik, Ruiz-Ricoren arabera, eskubideetan ahultasuna Konstituzioan aurreikusia ez egotearen eta legegileak atzera pausoak ematea galarazteko nukleo ukiezina ez ezartzeren ondorioa da eta horregatik, lana eta familia bateragarri izateko eskubidearen hedadura konstituzionala indartu behar dela dio, ezin delako lan arloko eskubide soilletara mugatu. Hala, aukera eta tratua berdintasunaren oinarri izateagatik aitortu beste

¹²⁶ BALLESTER PASTOR, María Amparo, *Retos y perspectivas de discriminación laboral por razón de género*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2017, 172-173 or.

¹²⁷ IGAREDA GONZÁLEZ, Noelia, "El derecho al cuidado...", op. cit., 203 or.

¹²⁸ SALAZAR BENÍTEZ, Octavio, "La dimensión Constitucional de la...", op. cit., 31-34 or.

eskubide eta printzipio konstituzional batzuekin lotura eginez ere lotu daitekeela deritzo, horien artean; adintxiki eta familiaren babesa, lantoki eta negozioazio kolektiboetan emakumeen parte-hartze edota osasunerako eskubidea¹²⁹.

Autore desberdinen iritziekin amaitzeko, Goerlitch Peset eta Nores Torresen esanetan, beharrezkoa da gizon zein emakumeak babestuko dituen araudia izateko kontziliazio eskubidea diskriminazio zehatz eta autonomo gisa aurreikustea¹³⁰.

Gure aburuz, kontziliazio eskubidea berdintasun eskubide eta diskriminazio debekuekin harremanetan egoteaz gain, beste oinarrizko eskubide batzuekin ere lotzen da, haren inguruko interpretazio ugari egitea eraginez. Hori dela eta, babes Konstituzionaleko oinarrizko eskubide autonomo gisa aurreikusi beharko litzatekeela deritzogu, haren edukia finkatzeak interpretaziorako aukera gutxituko bailuke kontziliazio eskubidea egikaritzea erraztuz.

3.3.2. Kontziliazio eskubidearen edukira hurbilketa

Behin kontziliazio eskubideak izaera konstituzionala izateko duen beharra azalduta, eskubide honen oinarrizko eduki konstituzionala izan beharko litzatekeenera hurbilketa egingo dugu aztertuko dugu: batetik, garrantzitsua delako legegile eta enpresarien esku sartzeak ekiditeko eta bestetik, kontziliazio eskubidearen egikaritzak beste eskubide batzuen galera (antzinatasun, promozio eta formazio profesionalerako eskubideak esaterako) edota beste zigor batzuk ezartzen dizkielako hauen titularrei (ordainsarien galera esaterako), honek kontziliazio eskubidearen eduki juridikoa kaltetuz eta haren erabilera baztertzea eraginez. Horregatik, eskubidearen finkapenak urraezina den eskubidearen edukia ezarriko luke.

Lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko eskubidea Gizon eta Emakumeen Berdintasun Eraginkorrerako Lege Organikoan mugaturik jasotzen ez den eskubidea den heinean, eduki zehaztugabe eta moldagarria duen eskubidea da. Alabaina, hainbat lan eskubidetan banatzeak, Gizon eta Emakumeen Berdintasun Eraginkorrerako Lege Organikoak Gizarte Segurantzza, Autonomia Pribatu eta lan araudira egiten baititu esleipenak, kontziliazio eskubidearen mugaketan negatiboki eragiten du, ukaezina den edukia izatea galarazten baitu eta ondorioz, izaera konstituzionala galtzea¹³¹.

¹²⁹ RUIZ-RICO RUIZ, Catalina, “*El derecho constitucional...*”, op. cit., 8-9 or.

¹³⁰ RECHE TELLO, Nuria, *La dimensión constitucional del derecho ...* op. cit., 775 or.

¹³¹ RUIZ-RICO RUIZ, Catalina (2012). *El derecho constitucional...*, op. cit., 65 eta 98 or. Gizon eta Emakumeen Berdintasunaren aldeko Lege Organikoko 44 artikuluan ez da kontziliazio eskubidearen zerrenda itxi bat aurreikusten honela esaten duelarik reconocerán en forma que

Hala, Rechek eskubide honen bidez oinarritzko alderdi batzuk babestu beharrekoak direla adierazten du, horiek hiru taldean bereiziz eskubidearen helburuaren arabera¹³²:

A) Familiako erantzukizunak dituzten langileak babestea: gurasotasun baimenatarako eskubidea ezarriz, kontziliazio eskubideen egikaritzan sexuagatiko diskriminazioa debekatuz, eskubideak egikaritzeagatik zigorrik ez jasatea bermatuz, eskubideen egikaritzaren bitartean promozio profesionalerako eskubidea izanez, lanera itzultzean lan baldintzak mantenduz, eta familiako erantzukizunak dituzten eta ez dituzten langileen aukera eta tratu berdintasunerako eskubidea bermatuz.

B) Laneko eta familiako erantzukizunen egikaritzan erantzunkidetasuna bultzatzea: amatasun eta aitatasun baimenen iraupen parekatuaren bidez (emakumeen berrekuratzeko fisikoko 6 asteak salbu), eta behin-behinekotasunez gizonezkoek kontziliazio eskubideak egikaritzeko akzio positiboak sustatuz.

C) Kontziliazio eskubidearen promozio eta garapen eraginkorra bultzatzea: eskubide presentzialen garapenari ausentziazkoen aurretik lehentasuna emanez langileek ez dezaten bizitza aktiboa ukatu behar izan¹³³, kontziliazio eskubidea indartuz lan ezegonkorreko sektoreetan, bizitza pertsonaleko kontziliazio eskubideak promozionatuz eta garatuz garrantzi konstituzionalekoak eta legez bermaturik ez dauden arloetan, eta familia babesaren aldeko neurriak indartuz gizon-emakumeen aukera berdintasunaren ikuspegitik, prestazio eta laguntza sozial, familiar eta fiskalak txertatuz eta menpekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzarako zerbitzu publikoak eskainiz.

Hortaz, orokorrean hiru izango lirateke kontziliazioak babestu beharko lituzkeen oinarritzko edukiak: gizonezkoen erantzukizunerako sustapena, bizitza pertsonal eta familiarra egokitzen diren enplegu egituren egokitzapena, eta zerbitzu sozio-komunitarioen eta zerbitzu ekonomiko eta neurri fiskalen sorrera eta egokitzapena.

fomenten la asunción equilibrada de responsabilidades familiares, evitando toda discriminación basada en su ejercicio". Honi esker, legez aurreikusita ez dauden eskubide eta neurriei atek zabalik uzten zazkie.

¹³² Eskubideen sailkapena egiteko irizpideak RECHE TELLO, Nuria, *La dimensión constitucional del derecho...*, op. cit., 791-792. atara da, baina ildo beretik hainbat autore adierazten dira: "Posicionamiento de la Red Feminista...", op. cit., 2 or.; eta SALAZAR BENITEZ, Octavio, "Género, poder...", op. cit., 66-70 or.

¹³³ BALLESTER PASTOR, María Amparo, *Retos y perspectivas de...*, op. cit., 182 or. Kontziliazio presentzialari ausentzialari baino garrantzi gehiago ematearen arrazoia, kontziliazio ausentzialak langileen promozioan eragiten dituen kalte larriak (ordainsari, promozional...) dira. Hala ere, orain arte ez da kontziliazio presentzialaren aldeko aldaketarik egin.

Dena den, oinarrizko edukiaz gain espainiar barne ordenamenduak kontziliazio eskubidea hobeto egikaritu dadin legez garatzeko aukera uzten du, eduki gehigarri hau ere hedadura konstituzionalekoa izanik; batetik, eduki gehigarria oinarrizko edukia eraikitzen den printzipio berdinetan oinarritzen delako eta bestetik, gutxieneko edukia garatzen duen araudiaren ukapen justifikatu gabeak edo haren egikaritzagatik zigorra ezartzeak gizon-emakumeen arteko berdintasun eskubidea urratzen duelako¹³⁴.

3.3.3. Kontziliazio eskubidearen Konstituzionalizaziorantz erantzunkidetasunaren ikuspegitik eta Konstituziorako proposamena

Kontziliazio eskubidearen inguruko ikerketa doktrinaleraino gain, zuzenbide konparatuak, Autonomia Estatutuak eta mugimendu sozialak (Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta esaterako) daude erantzunkidetasunaren ikuspegiko kontziliazio eskubidea oinarrizko eskubide autonomo gisa aurreikusteko. Horregatik, orain arte eman diren aurrerapenak ezagutzeko mugimendu sozial eta juridiko hauek emaniko pausoak aztertuko ditugu.

Autonomia Estatutuak bloke konstituzionalaren parte diren heinean, kontziliaziorako eskubidea Autonomia Erkidegoetako oinarrizko araudi instituzional gisa barneratzea aurrerapen juridiko handia da. Hain justu, Estatutuen izaera kontuan izanik, sistema konstituzionala genero berdintasunaren ikuspegitik osatzeko balio izan dutela esan dezakegu; hau dena ordea, oinarrizko eskubide bezala baino gehiago printzipio gidari gisa jasotzen da¹³⁵. Hala, kontziliazioren arloa gehien lantzen duten Estatutuak Kataluniakoa eta Andaluziakoa dira, gutxienez lantzen dutenak Extremadurakoa eta Valentziakoa izanik.

Kataluniako (uztailaren 19ko 6/2006 LO) Estatutu Autonomikoak esaterako, ez dio kontziliaziorari erreferentzia espresurik egiten, baina “emakumeen eskubideak” artikulutik ondorioztatu daiteke eta zehazki “pertsonalitate eta gaitasun pertsonal askerako” eta “eremu publiko zein pribatuan gizonen aukera berdineko baldintzetan parte hartzeko aukera” esapideetatik (19 art.). Gainera, familia eta pertsonen babeserako, kontziliazioa bermatzera bideraturiko neurri ekonomikoak eta legediak garatzeko ardura ezartzen zaie botere publikoei (40.2 art.). Bukatzeko, politika ekonomiko eta sozialak ezartzean zaintza eta familia zein etxeko atentzioari balio ekonomikoa aitortzeko eta aintzat hartzeko ere agintzen zaie (41.4 art.)¹³⁶.

¹³⁴ LOUSADA AROCHENA, José Fernando, *El derecho fundamental a la...*, op. cit., 399 or.

¹³⁵ SALAZAR BENÍTEZ, Octavio, “La dimensión Constitucional de la...”, op. cit., 15-16 or.

¹³⁶ Ley Orgánica 6/2006, de 19 de julio, de reforma del Estatuto de Autonomía de Cataluña. 19. art. Derechos de las mujeres: “1. Todas las mujeres tienen derecho al libre desarrollo de su personalidad y capacidad personal, (...). 2. (...) a participar en condiciones de igualdad de

Andaluziako (martxoaren 19ko 2/2007 LO) Estatutuari dagokionez, genero berdintasuna printzipio transbertsal gisa barneratzen da. Hala, Autonomia Erkidegoaren helburua “demokrazia parekidea” dela espresuki aipatzen da (10.2 art.), lana eta familia bizitzaren kontziliazioa xede gisa jasoz (10.3.1^o art.). Zentzu honetan, politika publikoen printzipio gidarien zerrendan berriro aipatzen da kontziliazioa (37.1.11^o art.), baita Enplegu, Ekonomia eta Ogasunari eskaintzen zaion VI Tituluan ere (168 art.)¹³⁷.

Ildo beretik, Gaztela eta Leongo (azaroaren 30eko 14/2007 LO) Estatutuak kontziliazioa politika publikoen printzipio zuzentzaile gisa aurreikusten du (16 art.)¹³⁸.

Aragoiko (apirilaren 20ko 5/2007 LO) Estatutuak berriz, “pertsonek eskubideei” zuzenduriko artikuluan lantzen du kontziliazio eskubidea. Honetan, pertsona guztiei beraien ongizatera bideraturiko prestazio sozialak jasotzeko eskubidea aitortzen zaie, baita lana eta familia bateragarri izateko Legeek aurreikusten dituzten baldintzetan familiako arduretarako laguntza zerbitzurako eskubidea (12 art.). Helburu hau enplegu

oportunidades con los hombres en todos los ámbitos públicos y privados”. 40.2. art. Protección de las personas y de las familias: “Los poderes públicos deben garantizar la protección jurídica, económica y social de las distintas modalidades de familia previstas en las leyes, como estructura básica y factor de cohesión social y como primer núcleo de convivencia de las personas. Asimismo, deben promover las medidas económicas y normativas de apoyo a las familias dirigidas a garantizar la conciliación de la vida laboral y familiar y a tener descendencia, con especial atención a las familias numerosas”. 41.4. art. Perspectiva de género: “Los poderes públicos deben reconocer y tener en cuenta el valor económico del trabajo de cuidado y atención en el ámbito doméstico y familiar en la fijación de sus políticas económicas y sociales”.

¹³⁷ Ley Orgánica 2/2007, de 19 de marzo, de reforma del Estatuto de Autonomía de Andalucía para Andalucía. 10.2. art. Objetivos básicos de la Comunidad Autónoma: “La Comunidad Autónoma propiciará la efectiva igualdad del hombre y de la mujer andaluces, promoviendo la democracia paritaria y la plena incorporación de aquella en la vida social, superando cualquier discriminación laboral, cultural, económica, política o social”. 10.3.1^o art. “La Comunidad Autónoma, ejercerá sus poderes con los siguientes objetivos básicos: 1.º (...), la conciliación de la vida familiar y laboral y la especial garantía de puestos de trabajo para las mujeres y las jóvenes generaciones de andaluces”. 37.1.11^o art. Principios rectores. “Los poderes orientarán sus políticas públicas a garantizar y asegurar el ejercicio de los derechos reconocidos en el Capítulo anterior y alcanzar los objetivos básicos establecidos en el artículo 10, mediante la aplicación efectiva de los siguientes principios rectores: 11.º La plena equiparación laboral entre hombres y mujeres y así como la conciliación de la vida laboral y familiar”. 168. art. Conciliación de la vida laboral, familiar y personal. “La Comunidad Autónoma impulsará políticas que favorezcan la conciliación del trabajo con la vida personal y familiar”.

¹³⁸ Ley Orgánica 14/2007, de 30 de noviembre, de reforma del Estatuto de Autonomía de Castilla y León. 16. art. Principios rectores de las políticas públicas. “Los poderes públicos (...), deben promover y adoptar las medidas necesarias para garantizar la plena eficacia de los siguientes objetivos: 13. La protección integral de las distintas modalidades de familia, garantizándose la igualdad de trato entre las mismas, favoreciendo la conciliación de la vida personal, familiar y laboral, (...)”.

eta lanera bideraturiko artikuluan berresten da, formazio eta promozio profesional eta lanerako sarbiderako aukera berdintasuna jasotzearekin batera (26 art.)¹³⁹.

Antzeko zentzuan, Balear Irletako Estatutua (otsailaren 28ko 1/2007 LO) adierazten da (17 art.)¹⁴⁰.

Babes gutxien eskaintzen duen Estatutua Valentziakoa (apirilaren 10eko 1/2006 LO) da, Erkidegoko Eskubide Sozialen Gutunera helaraziz babesten baitu kontziliaziozko eskubidea (10 art.). Gainera, Generalitatearen jarduera zein arlotan zentratu behar den adierazten du, gizon-emakumeen berdintasuna nabarmenduz eta horrekin harremanetan lan eta familia bateratzea¹⁴¹.

Euskal Herriari begira Gutun Soziala dugu kontziliaziorako eskubidea babesteko eredu gisa. Honetan, laneratzeko zailtasuna duten kolektiboei lan merkatuan barneratzeko laguntza ezartzeko ardura jartzen die botere publikoei, lan berdinarengatik soldata berdina jasoz. Gainera, lana eta bizitza kontziliatzeko estrategia gisa, soldata jaitsierarik gabeko lanaldi murrizketa izateko eskubidea aurreikusten du erantzunkidetasuna sustatuz eta genero banaketa gaindituz. Honez gain, genero ikuspegitik parekidea den

¹³⁹ Ley Orgánica 5/2007, de 20 de abril, de reforma del Estatuto de Autonomía de Aragón. 12. art. Derechos de las personas: “1. Todas las personas tienen derecho a vivir con dignidad, seguridad y autonomía, libres de (..) todo tipo de discriminación, y tienen derecho al libre desarrollo de su personalidad y capacidad personal. 2. Todas las personas tienen derecho a las prestaciones sociales destinadas a su bienestar, y a los servicios de apoyo a las responsabilidades familiares para conciliar la vida laboral y familiar, en las condiciones establecidas por las leyes”. 26 art. Empleo y trabajo: “Los poderes públicos promoverán el pleno empleo de calidad en condiciones de seguridad; la prevención de los riesgos laborales; la igualdad de oportunidades en el acceso al empleo y en las condiciones de trabajo; la formación y promoción profesionales, y la conciliación de la vida familiar y laboral”.

¹⁴⁰ Ley Orgánica 1/2007, de 28 de febrero, de reforma del Estatuto de Autonomía de las Islas Baleares. 17 art. No discriminación por razón de sexo. “1. Todas las mujeres y hombres tienen derecho al libre desarrollo de su personalidad y capacidad personal, y a vivir con dignidad, seguridad y autonomía. 2. Las Administraciones públicas, según la Carta de Derechos Sociales, velarán en todo caso para que las mujeres y los hombres puedan participar plenamente en la vida laboral, social, familiar y política sin discriminaciones de ningún tipo y garantizarán que lo hagan en igualdad de condiciones. A estos efectos se garantizará la conciliación de la vida familiar y laboral”.

¹⁴¹ Ley Orgánica 1/2006, de 10 de abril, de reforma del Estatuto de Autonomía de la Comunidad Valenciana. 10 art.: “1. La Generalitat defenderá y promoverá los derechos sociales de los valencianos (...) 2. Mediante una Ley de Les Corts se elaborará la Carta de Derechos Sociales de la Comunitat Valenciana, como expresión del espacio cívico de convivencia social, que contendrá el conjunto de principios, derechos y directrices que informen la actuación pública de La Generalitat en el ámbito de la política social. 3. En todo caso, la actuación de La Generalitat se centrará primordialmente en los siguientes ámbitos: defensa integral de la familia; protección específica y tutela social del menor; (...); igualdad de derechos de hombres y mujeres en todos los ámbitos, en particular en materia de empleo y trabajo (...)”.

hezkuntza publiko baterako sarbiderako eskubidea jasotzen du. Bukatzeko, Euskal Herriko bizitza sozial eta ekonomikoan parte hartze aktiborako eskubidea izateko oinarri gisa pertsona orori babes soziala izateko eskubidea aurreikusten die¹⁴². Hau da, bizitza ardatz duen gizarte baterako eskubideak aurreikusten ditu.

Europari begira, zaintzarako sistema desberdinak topa ditzakegu, eredugarri diren herrialdeen artean, herrialde eskandinaviarrak egonez. Hauetan erantzunkidetasuna hiru oinarritan funtsatzen da: diskriminazioaren aurkako legedi sendoa izatean, aitatasun aktiborako baimenen sustapenean eta haurtzaroaren zaintzarako sistema publikoan. Suediak berriz, gurasotasun baimen bakarra du, ama eta aitentzat baliogarria izango dena. Sistema hau, epe desberdinekin bada ere, Norvegian erabiltzen da.

Aurkako egoeran, mediterraneoko herrialdeak ditugu -Grezia, Italia, Portugal-. Hauetan, gizartearen antolakuntzak familia modelo tradizionalen oinarritua izaten jarraitzen du, hau da, zaintzak arlo pribatuan egoten jarraitzen dute, sistema publiko babes eskasarekin. Ondorioz, haren ardura emakumeen gain erortzen da, ardura hauek gizonezkoetara zabaltzea orain gutxiko aurrerapena izanik.

Europa Batasuneko gainerako herrialdeak bi sistemen artean mugitzen dira¹⁴³. Hartara ikusi daiteke, Europako zenbait herrialdetan hobeto bermatua dagoen eskubidea izan arren, ez dagoela berme Konstituzionala aitortzen dion herrialderik, bere oinarria berdintasun eskubidea izanik eta garapena Lege bidez eginez.

Hartara, ikusi ditugun aurrerapenak pixkanakakoak izan arren, erantzunkidetasunaren ikuspegitik kontziliazio eskubideari berme konstituzionala aitortzeko modurik egokiena, Konstituzioaren erreforma eskubidea babestuko duen testu berri bat txertatuz egitea dela erakusten digute, diskrezionalitateko aukerarik uzten ez duen xedapenez eta gainerako oinarrizko eskubideekin batera jasoz. Testuak honela adierazi beharko luke:

“1) Pertsona orok du lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko eskubidea, familia unitatean arduren banaketa erantzunkidetasunaren bidez egingo delarik generoen rola gainditzeko.

¹⁴² Gutun Sozialaren aurrekarian azaltzen den moduan Gutun Soziala “Euskal Herriko Mugimendu Sozial eta Sindikalen Batzarrak” sortu du, langileen eta herri alderdi desberdinen (emakume, gizon, gazte, heldu, atzerritar, preso, baztertu, dibertsitate funtzionala duten pertsonak...) nahi eta aldarrikapen esanguratsuen laburpen bat izateko asmoz. Hartua (2018/03/17): <http://www.eskubidesozialenkarta.com/wp-content/uploads/2014/10/Eskubide-Sozialen-Karta.pdf>

¹⁴³ LOUSADA AROCHENA, José Fernando, *El derecho fundamental a la...*, op. cit., 393-394 or.

2) Debekatua dago kontziliazio eskubideak egikaritzeagatik diskriminatua izatea edota zigorrak jasatea.

3) Botere publikoen ardura da eskubide hau aurrera eramatea galarazten duten oztopoak ezabatu eta eskubidearen egikaritzea eraginkorrerako legeak sortu eta neurriak sustatzea”.

Maila Konstituzionaleko eskubide hauen aitortpenarekin eta neurri politiko eraginkorrekin dikotomia publiko-pribatuaren hausturako zikloa amaituko litzateke, bi eremuetan gizon zein emakumeek jardungo bailukete.

4. ONDORIOAK

LEHENA.- Historikoki emakumea eremu publikotik eta ordezkaritza politikoaren sistematik baztertua izan da, beraien jardura eremu arlo pribatuko funtzio sozialetara mugatuz eta honetan ere gizonezkoen menpe egonez. Ideia hauek Rousseau eta Locke pentsalarien teoria moral eta politikoetan dute funtsa, emakumezkoak arrazionalki eta naturalki gizonezkoak baino gutxiago zirela uste baitzuten. Hala, emakumeek egoeraren kontzientzia hartu eta eskubideak aldarrikatzen hasi ziren Frantziako Iraultza izanik eskarien abiapuntua.

Alabaina, pentsalari hauen eraginak Espainiako lehen Konstituziotik (1812) II. Errepublikara arte (1931) iraun zuen, denbora guzti honetan emakumea ez zelarik eskubidezko subjektu aitortzen. Alabaina, II. Errepublika ordea, une garrantzitsua izan zen feminismoaren ikuspegitik, 1931ko Konstituzioan emakumeen boto eskubide aitortu baitzen lehen aldiz, emakumeari hiritartasuna aitortuz eta hortaz, Espainian lehen aldiz benetako demokrazia ezarriz.

Garai honetan, genero ikuspegia aintzat hartzen hasi ziren, emakumeei boto eskubidea aitortzean eta zuzenbidezko subjektu izaera aitortzean hiritartasuna aitortu zitelako, hau da, ordura arteko gizarte antolakuntza dikotomia publiko-pribatuan oinarritzen zen, baina sufragio eskubidearen aitortpenak emakumea eremu publikoan ikustarazten lagundu zuen, hiritartasuna dagokion eskubide guztiekin egikaritzea erraztuz. Gainera, emakumeei ordura arte ukatzen zitzaizkien zenbait eskubide aitortuz eta hezkuntza parekidea sustatzen zuen sistemaren bidez gizon-emakumeen berdintasunaren aldeko aurrera pausoak eman ziren. Zoritxarrez, Gerra Zibilak eta frankismoaren garaipenak, atzera pauso handia izan zen, haren eragina egungo gizartean nabarmena izanik.

BIGARRENA.- Gerra Zibilaren eztandak eta ondorengo 40 urteko frankismoaren diktadurak izugarritzko kaltea eragin zuen gizon-emakumeen parekidetasunean, hain justu ere II. Errepublikaren aurreko egoerara itzuli zirelarik.

Ideal nazional-katolikoa nagusi zen garaian, betiereko adin txikiko egoera ezarri zitzaion emakumeari, haren funtzio nagusia familia eta etxearen zaintza izanik. Hala, nabarmena da orduko legeek, desabantailazko egoeran kokatzen dutela emakumea, Estatuaren kontrolpean egoteaz gain, gizonaren menpe ere geratu zirelako, hau da, berriro ere Rousseauren teoria ezarri zen emakumeen ahuleziaren teorian oinarrituz. Printzipio hauek gizartearen antolakuntza zuzentzen dute eta baita ordenamendu juridikoa eta hezkuntza ere.

Edonola ere, 1975ean Francoren heriotzarekin eta ONU-ren Nazioarteko Emakumeen Urtearen izendapenarekin, Espainian ateak ireki zitzaizkion demokrasiari eta ordura arte klandestinitatean jarduten zuten mugimendu feministak azaleratzen hasi ziren.

1975-1978 urteen artean gertakizun politiko garrantzitsuak eman ziren, tartean Gobernu berria eratu eta 1978 Konstituzioa idatzi zelarik eta feministek gertakari hauen barrenetik parte hartu ez arren, modu aktiboan jardun zuten.

HIRUGARRENA.- Hartara, 1978 Konstituzioaren onarpena gertaera gogoangarria da, baina aldi berean aldarrikapen feministen ukapen ikurra ere bai, izan ere, Konstituzioa adostasunezko itun gisa ezaugarritu arren, genero ikuspegiko eskariei uko egiteagatik lortu zen adostasuna da.

Horrela, ba, nahiz eta eskubideen berdintasunean ezinbesteko garrantzia izan, ezin da emakumeek haren sorreran izan zuten parte hartze murrizari kritika egiteari utzi. Hain zuzen ere, garaiko Gorte Konstituziogilea gizartearen isla zen, emakumeen presentzia erabat sinbolikoa baitzen, Konstituzioaren erredakzioan ez zelarik emakumeen parte hartzerik egon, hortik Konstituzioak zazpi aita dituela esatearen arrazoia. Hau da, 1978 urteko Gorte Konstituziogileek eta gertaera politikoak emakumeak politikan eta era berean, eremu publikoan jasaten duen bazterketaren irudi zen.

Itxuraz sexuen artean neutraltasuna mantentzen duen ituna da Konstituzioa, izan ere, berdintasuna ordenamendu juridikoko balore gisa aurreikusi (1.1 art.), berdintasun eskubidea jaso eta sexuarengatik diskriminazioa debekatu (14 art.) eta berdintasuna eskuratzeko oztopoak ezabatzea botere publikoen ardura (9.2 art.) dela barneratzen du; alabaina, ez da errealitatean ematen den diskriminazioaren ispilu. Hain justu, Konstituzioak genero ikuspegia falta duela kritikatzeko da, emakumea ez delako babes

berezia behar duten talde bezala aitortzen eta emakumeei erreferentzia egiten dieten artikuluak oso gutxi direlako. Horrela, ba, eskubideen aitortpenerako femeninoan hitz egin dezaketenean ere hizkuntza neutroa erabiltzen du.

Hau da, 1978 Konstituzioan ez zen frankismoarekiko erabateko haustura egon eta ondorioz, egun, gabezia horiekin bizi gara. Halatan, demokrazian barneraturik egon arte eta legeen garapena eman arte ez zen gizon-emakumeen berdintasunean aurrerapenik.

Edonola ere, feminismo garaikideak parekidetasuna ez dela arlo publikoaren sustapenarekin soilik lortzen adierazten du, horretarako ezinbestekoa izanik eremu pribatuaren demokratizazio ematea, hemen ere, desparekidetasuna, diskriminazioa eta botere patriarkalaren harremanak ematen direlako.

LAUGARRENA.- Auzitegi Konstituzionala testu konstituzionalaren interpretatzaile nagusia den heinean, bertan aurreikusten zen berdintasun formala materializatzen dela bermatu beharra dauka, era berean berdintasun eskubidearen irismena, mugak eta eremua ezarriz. Alabaina, Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentzia guztia aztertzea ezinezkoa denez, eremu pribatuan gure ikerketari gehien eragiten zion alderdiak aztertu ditugu.

Hala, Auzitegiren sorreratik gaur egunera arte berdintasuna eskuratzeko joeran aldaketa eman dela ohartzen gara, izan ere, hasiera batean berdintasuna abiapuntu gisa hartzetik helburu hartzera igaro da, egoera desberdinei erantzun berdina emateak diskriminazio egoerak areagotzen baitzituen. Alabaina, joera aldaketa AKE 128/1987 ebazpenaz geroztik eman da, egoera desberdinei erantzun desberdina ematea baimendu baitzuen.

Honela, berdintasun errearen aldeko pausoak ematen joan da pixkanaka, 1991an emakumeek jasaten duten desparekidetasuna aitortu zuelarik lehen aldiz eta botere publikoei egoera hauek ezabatzeko modu aktiboan parte hartzera bultzatu zituen.

Hala ere, feministek kritikatzeko dute ez dela eremu pribatuaren berdintasuna bermatzeko jurisprudentzia sendorik eraiki. Amatasuna babesten duen jurisprudentzia egon arren, ez da aitatasuna eta orokorrean eremu pribatuko ardurak gizonezkoengana zabaltzera bultzatzen duen jurisprudentziarik sortu. Dena den, aipatzeko da azken urteetan AKE 3/2007 eta 26/2011 ebazpenen bidez apurka-apurka aurrera pausoak ematen ari direla.

BOSGARRENA.- Gizon-emakumeen berdintasun erreala eskuratzeko bidea denboraren erabilera orekatua eskuratzeko da. Horretarako, dikotomia publiko-pribatuak

eragiten duen lanaren banaketa sexuala burutzeari utziz, bi eremuetan gizon-emakumeen presentzia parekidea lortu behar da, izan ere, eremu pribatuan emakumeen presentzia gailentzen den heinean eremu publikoan presentzia izateko denbora lapurtzen ari gara. Hori dela eta, bi eremuen erreforma bateratua eman behar da, eremuetako bat baztertzeko eskubide erreala eskuratzea galarazten baita.

SEIGARRENA.- Urteek aurrera egin ahala, dikotomia publiko pribatuaren arteko haustura emateko ahaleginak egin dira, baina pauso txikiak izan dira, oraindik ere espainiar gizartea lanaren bereizketa eta sexuen arteko rol banaketarengatik ezaugarritzen delarik. Hain zuzen ere, orain arte erantzunkidetasuna aintzat hartzen ez zuten kontziliaziozko neurriak izan dira hartu direnak, hau da, emakumea arlo publikoan barneratzera bideraturiko politikak, baina arlo pribatuko ardurak gizonezkoenagan zabaldu gabe.

Hala, aztertu ditugun hezkuntza, lan eta seme-alaben nahiz familiarteko zaintzarako baimenen estatistiketatik ondorioztatu daiteke, oraindik ere ez dela gizon-emakumeen arteko berdintasun erreala; ez eremu publikoan ezta eremu pribatuan ere, emakumeak eremu pribatukoaz arduratzeko baimenen tasa altuagoa delako, gizonezkoak baimen hauek eskatzeko joera hazi den arren.

Azaldurikoaren ondorioz, hiru arazo nagusi sortzen dira. Lehenik, emakume langilea lanaldi bikotzera lotzen da batetik, arlo publikora lotua dagoen enplegua duelako eta bestetik, arlo pribatuan burutzen duen lana. Baina, egoera hau desorekatua da, arlo pribatuko lana ordaindu gabea eta balio ekonomikorik ez duena izan arren, emakumeek dohainik burutzen dituzten heinean ekonomiaren hazkundera laguntzen dute, aberastasuna familiaren zaintza eta atentzioan beharrezkoa den inbertsioa egitea ekidinez sortzen baitu. Bestetik, emakumearen lanaldi bikoitzaren ondorioz, langabezia feminizatzen da, emakumeak langabezia daudenean etxeko ardurei eta familiaren zaintzari eskaintzen dietelako beraien denbora, baina lan hau burutzen ez badute Estatu Sozialari eskatzen zaio hauen ardura hartzea, alegia familiaren ongizatea emakumearen langabeziarekin baitago harremanetan. Azkenik, emakumeen ordutegiaren malgutasun ezagatik diskriminazioa sortzen da lanean, bai soldata aldetik eta baita lan okupazio aldetik ere, emakumeari enpresetan erantzukizuneko postuetara sartzea zailduz.

Hala, berdintasun erreala eskuratzeko bidea bi sexuei erantzukizunak modu parekidean banatzea da, hau da, erantzunkidetasuna. Izan ere, emakumeek arlo pribatuko arduren erantzule izateak arlo publikoan presentzia izatea eragozten du, ondorioz gizonezkoen menpe egotera bultzatzen zaie.

ZAZPIGARRENA.- Horregatik, berdintasun erreala eskuratzeko arazoaren jatorrira jo beharra dago; dikotomia publiko-pribatuara alegia. Lanen banaketa sexualarekin amaitu behar da eremu pribatua gizonezkoetara zabalduz eta eremu publikoan emakumeak barneratzea sustatuz. Hori dela eta, lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko eskubidea, berdintasun eskubide eta diskriminaziorako debekuaren proiektio izan beharrean oinarrizko eskubide autonomo Konstituzional gisa jaso behar litzateke, oinarrizko eskubide ez autonomoaren interpretazioak eskubideak atzera pausoak jasateko aukera ematen baitu.

Hala, kontziliazio eskubidea eskubide soziala den heinean, oinarrizko eskubide gisa ulertu behar da, izan ere, eskubide zibil eta politikoen moduan, hiritarren oinarrizko beharrei erantzuten die. Beharrak aseko ez balira, hiritarrak autonomoak izan eta bizitza gutxieneko duintasunarekin eramatea eragozten dutenak dira, izan ere, asetzen ez direnean pertsona baldintzarik gabeko erabakiak hartzeko ezinean uzten dute. Alegia, gizartearen antolakuntza berri bat ezarri behar da, hiritartasunaren ideia berri batekin “*cidadanía*” izango litzatekeenarekin. Hiritartasunaren kontzeptu honek bizitza jartzen du gizartearen ardatz gisa hartzen du, ongizatea denon eskubide eta ardura izanik.

ZORTZIGARRENA.- Kontziliazio eskubidearen eremua interpretazio tradizionaletik haragokoa egin beharko litzateke eta ulerkera garaikidearekin bat eginez eskubide honen barnean lana eta familia barneratzeaz gain garrantzi konstituzionala duten ikuspegi pertsonaleko eskubideak ere barneratu beharko lituzke.

Baina, batzuetan, kontziliazio eskubidea egikaritzeak kalteak sorrarazten dizkio haren titularrari, beste eskubide batzuen galera eragiten duelako edota beste zigor mota batzuk ezartzen zaizkiolako, horregatik ezinbestekoa da kontziliazio eskubidearen eduki finkatua izatea, honek babes Konstituzionala izango lukeen heinean ezingo litzatekeelako kaltetua izan, ezta bere titularra ere eskubide hau egikaritzeagatik. Horrela, ba, hiru talde nagusitan barneratuko litzateke eskubide honen edukia: 1) gizonezkoen erantzukizunerako sustapena, 2) bizitza pertsonal eta familiarra egokitzen diren enplegu egituren egokitzapena, eta 3) zerbitzu sozio-ekonomikoen sorrera eta egokitzapena. Dena den, eskubide orokor hauek Legez garatu ahala izango lirateke, garapen Legegileak ere babes Konstituzionala izango lukeelarik.

Espainiako Autonomia Estatutuei erreparatuz, bereziki Katalunia nahiz Andaluzia bezalako Estatutuetan kontziliazio eskubidea eskubideen atalean jasotzen da. Era berean, zuzenbide konparatuari begira, babes maila mota askoko herrialdeekin

aurkitzen gara baina bakar batek ere ez du eskubide Konstituzional gisa aurreikusten, egokien bermaturiko herrialdeetan Lege bermea eskainiz.

Edonola ere, eskubidearen garrantziarengatik oinarrizko izaera aitortu beharko litzaioke Konstituzioan barneratuz. Xedapenak garapenerako aukera utzi beharko luke, baina diskrezionalitatez jarduteko aukerarik eman gabe. Hala, eskubidea hiru puntu nagusitan bereiziko litzateke, honen bidez dikotomia publiko-pribatuaren zikloarekin amaituz eta tradizionalki eskubide zibil eta politikoei balio gehiago ematearen klasifikazio hautsiz: “1) Pertsona orok du lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko eskubidea, familia unitatean arduren banaketa erantzunkidetasunaren bidez egingo delarik generoen rola gainditzeko. 2) Debekatua dago kontziliazio eskubideak egikaritzeagatik diskriminatua izatea edota zigorrak jasatea. 3) Botere publikoen ardura da eskubide hau aurrera eramatea galarazten duten oztopoak ezabatu eta eskubidearen egikaritza eraginkorrerako legeak sortu eta neurriak sustatzea.”

BEDERATZIGARRENA.- Honenbestez, argi dago, lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko eskubideak erantzun politiko bat behar duela, orain arteko politikek aurkako noranzkoan egin baitute. Helburua gizon-emakumeen eremu pribatuko arduren banaketa parekidearen bidez emakumeen lan sarbidea, iraunkortasuna eta promozioa bermatuko dituen araudi sendo bat eraikitzea da eta horretarako tresnarik egokiena hezkuntza da, baloreen transmisio transbertsalarekin batera. Hauen bidez batetik, rol eta estereotipoak ezabatu eta bestetik, zaintzarako gaitasunak garatzen erakutsi baitaiteke, funtzio honi bere balorea ematea irakatsiz. Izan ere, merkatua baino gehiago bizitza erdigunean jartzen duen modelo baten alde egiten dugu, zaintza eta lan erreproduktiboak diru asko aurrezarazten baitio Estatu Sozialari, arlo pribatuak bere balio ekonomikoa ere baduelarik. Hala, modelo juridikoa eraldatzearekin batera, beharrezkoa izango litzateke modelo ekonomiko-soziala ere transformatzea.

5. BIBLIOGRAFIA

DOKTRINA

ÁLVAREZ CONDE, Enrique, y TUR AUSINA, Rosario, *Derecho Constitucional*, Tecnos, Madrid, 2015.

AGUILERA RULL, Ariadna, "Discriminación directa e indirecta", *Revista per a l'analisi del dret*, 1.

ASTOLA MADARIAGA, Jasone, "La reforma Constitucional. La reforma de la Constitución Española desde una perspectiva de género". *En La reforma Constitucional: la organización territorial del Estado, la Unión Europea y la igualdad de género* (dir.: Roura S. eta Tajadura J.), Biblioteca Nueva, Madrid, 2005.

BALAGUER CALLEJÓN, María Luisa, *Mujer y Constitución: la construcción jurídica del género*, Cátedra, Valencia, 2005.

BALLESTER PASTOR, María Amparo, *Retos y perspectivas de discriminación laboral por razón de género*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2017.

CASTELLS OLIVÁN, Irene, eta FERNÁNDEZ GARCÍA, Elena, "Las mujeres y el primer constitucionalismo español (1810-1823)", *Historia Constitucional*, 9, 2008.

CUENCA GÓMEZ, Patricia, "Mujer y Constitución: Los derechos de la mujer antes y después de la Constitución española de 1978", *Revista de Filosofía, Derecho y Política*, 8, 2008.

ESQUEMBRE CERDÁ, María del Mar, "La igualdad de género en la legislatura constituyente: notas sobre la elaboración de la Constitución Española de 1978 respecto de las cuestiones relacionadas con la situación de las mujeres", *Cuestiones de Género: de la Igualdad y la Diferencia*, 8, 2013.

ESQUEMBRE CERDÁ, María del Mar, "Las mujeres ante el cambio constitucional. Algunos apuntes desde una perspectiva feminista para una "reforma constituyente" de la Constitución Española", *Atlánticas: Revista Internacional de Estudios Feministas*, 1, 2016.

GAHETE MUÑOZ, Soraya, "Las luchas feministas. Las principales campañas del movimiento feminista español (1976-1981)", *Investigaciones feministas*, 8(2), 2017.

GIL RUIZ, Juana María, “Crisis del Estado de Bienestar y desafíos del siglo XXI: dualismo vital y brecha ciudadana”, *Revista Vasca de la Administración-Pública. Herri-Ardularitzako Euskal Aldizkaria*, 109, 2017.

GÓMEZ FERNÁNDEZ, Itziar, *Una Constituyente feminista ¿Cómo reformar la Constitución con perspectiva de género?*, Marcial Pons, Madrid, 2017.

IGAREDA GONZÁLEZ, Noelia, “El derecho al cuidado en el Estado Social de Derecho”, *Anuario de Filosofía del Derecho*, 18, 2012.

JIMÉNEZ ASENSIO, Rafael, *Apuntes para una historia del constitucionalismo español*, Itxaropena, Zarautz, 1992.

LARRAÑAGA SARRIEGUI, Mercedes, eta ECHEBARRÍA MIGUEL, Carmen, “Actividad laboral femenina en España e igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres”, *Revista del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales*, 55, 2004.

LOUSADA AROCHENA, José Fernando, *El derecho fundamental a la igualdad efectiva de mujeres y hombres*, Valencia, Tirant lo Blanch, 2014.

MARRADES PUIG, Ana, “Los nuevos derechos sociales: el derecho al cuidado como fundamento del pacto Constitucional”, *Revista de Derecho Público*, 97, 2016.

MONTERDE GARCÍA, Juan Carlos, “Algunos aspectos sobre el voto femenino en la II República Española: debates parlamentarios”, *Anuario de la Facultad de Derecho*, 28, 2010.

MONTERO, Justa, “Feminismo y ¿Procesos Constituyentes?”, *Coordinadora Feminista - Federación Estatal de Organizaciones Feministas*, 2016.

PALOMO CERMEÑO, Eva, “Conciliación (laboral y familiar)”, *Euomía. Revista en Cultura de la Legalidad*, 13, 2017.

RECHE TELLO, Nuria, *La dimensión constitucional del derecho a la conciliación de la vida personal y laboral* (tesis doctoral), Universidad Miguel Hernández, Elche, 2016.

RODRÍGUEZ RUIZ, Blanca, “Hacia un estado post-patriarcal. Feminismo y ciudadanía”, *Revista de Estudios Políticos*, 149, 2010.

RODRÍGUEZ RUIZ, Blanca, “La dimensión Constitucional de la conciliación de la vida familiar y laboral, o de la dimensión doméstica de la ciudadanía”, *Revista española de Derecho Constitucional*, Núm. 103, 2015.

RUIZ DE LA CUESTA FERNÁNDEZ, Soledad, eta BAJO GARCÍA, Irene, “Conciliación de la vida familiar y laboral”, *Feminismo/s*, 8, 2006.

RUIZ-RICO RUIZ, Catalina, *El derecho constitucional a conciliar la vida laboral, familiar y personal*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2012.

RUIZ-RICO RUIZ, Catalina, “La problemática Constitucional del derecho a conciliar la vida laboral, familiar y personal”, *Revista General de Derecho Constitucional*, 14, 2012.

SALAZAR BENÍTEZ, Octavio, “La dimensión Constitucional de la conciliación de la vida personal, familiar y laboral”, *Revista General de Derecho Constitucional*, 14, 2012.

SALAZAR BENITEZ, Octavio, “Género, poder y ciudadanía”, *Cuadernos Manuel Giménez Abad* (Extra 5), 66, 2017.

SEVILLA MERINO, Julia, *Las mujeres parlamentarias en la legislatura constituyente*, Congreso de los Diputados, Madrid, 2007.

SEVILLA MERINO, Julia, VENTURA FRANCH, Asunción, eta GARCÍA CAMPÁ, Santiago, “La igualdad efectiva entre mujeres y hombres desde la teoría constitucional”, *Revista del Ministerio de Trabajo e Inmigración*, 67, 2007.

VALCÁRCEL, Amelia, *La memoria colectiva y los retos del feminismo*, CEPAL, Santiago de Chile, 2001.

VENTURA FRANCH, Asunción, “El silencio de género en el derecho constitucional: la constitución española de 1978”, *Dossiers feministes*, 3, 1999.

VENTURA FRANCH, Asunción, *Las mujeres y la Constitución Española de 1978*, Instituto de la Mujer, España, 1999.

ZOCO ZABALA, Cristina., “Igualdad entre mujeres y hombres tras 40 años de Constitución española”, *Revista de Derecho Político*, 100, 2017.

JURISPRUDENTZIA

Sentencia del Tribunal Constitucional 49/1982, de 14 de julio de 1982.

Sentencia del Tribunal Constitucional 81/1982, de 21 de diciembre de 1982.

Sentencia del Tribunal Constitucional 229/1992, de 14 de diciembre de 1982.

Sentencia del Tribunal Constitucional 75/1983, de 3 de agosto de 1983.

Sentencia del Tribunal Constitucional 76/1983, de 5 de agosto de 1983.

Sentencia del Tribunal Constitucional 128/1987, de 16 de julio de 1987.

Sentencia del Tribunal Constitucional 207/1987, de 22 de diciembre de 1987.

Sentencia del Tribunal Constitucional 166/1988, de 26 de septiembre de 1988.

Sentencia del Tribunal Constitucional 209/1988, de 10 de noviembre de 1988.

Sentencia del Tribunal Constitucional 145/1991, de 1 de julio de 1991.

Sentencia del Tribunal Constitucional 216/1991, de 14 de noviembre de 1991.

Sentencia del Tribunal Constitucional 229/1992, de 14 de diciembre de 1992.

Sentencia del Tribunal Constitucional 12/2001, de 29 de febrero de 2001.

Sentencia del Tribunal Constitucional 3/2007, de 15 de enero de 2007.

Sentencia del Tribunal Constitucional 59/2008, de 14 de mayo de 2008.

Sentencia del Tribunal Constitucional 26/2011, de 14 de marzo de 2011.

LEGEDIA

Ley 39/1999, de 5 de noviembre, para promover la conciliación de la vida familiar y laboral de las personas trabajadoras (BOE núm. 266, de 06/11/1999.)

Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres (BOE núm. 71, de 23/03/2007.)

Ley Orgánica 1/2006, de 10 de abril, de reforma del Estatuto de Autonomía de la Comunidad Valenciana (BOE núm. 164, de 10/07/1982)

Ley Orgánica 6/2006, de 19 de julio, de reforma del Estatuto de Autonomía de Cataluña (BOE núm. 172, de 20/07/2006)

Ley Orgánica 1/2007, de 28 de febrero, de reforma del Estatuto de Autonomía de las Islas Baleares (BOE núm. 52, de 01/03/2007)

Ley Orgánica 2/2007, de 19 de marzo, de reforma del Estatuto de Autonomía de Autonomía para Andalucía (BOE núm. 68, de 20/03/2007)

Ley Orgánica 5/2007, de 20 de abril, de reforma del Estatuto de Autonomía de Aragón (BOE núm. 97 de 23 de abril de 2007)

Ley Orgánica 14/2007, de 30 de noviembre, de reforma del Estatuto de Autonomía de Castilla y León (BOE núm. 288, de 01/12/2007)

DOKUMENTAL ETA BIDEOAK

CAPEL MARTÍNEZ, Rosa María, "Se cumplen 85 años del voto femenino en España". *IV Cumbre de Mujeres Juristas. Siglo XXI: ¿Una sociedad por fin en igualdad?* El Colegio de Abogados de Madrid, 2016. Hartua: <https://www.youtube.com/watch?v=hjwXtsFAWe0>

Homenaje a María Telo PPIINA, ppiina, 2014ko urria. Hartua: https://www.youtube.com/watch?v=w799O9_Kfwo

Las Constituyentes, Oliva Acosta (dir.), *Olivavá Producciones*, 2011.

VARELA, Nuria, *El voto femenino*, RTVE, 2012. Hartua: <http://www.rtve.es/alacarta/videos/para-todos-la-2/para-todos-2-voto-femenino/1302589/>

BESTE ITURRI BATZUK (TXOSTENAK, ESTADISTIKAK)

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta. Hartua: <http://www.eskubidesozialenkarta.com/wp-content/uploads/2014/10/Eskubide-Sozialen-Karta.pdf>

Estatistikak:

Instituto de la Mujer y para la Igualdad de Oportunidades, Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad, Gobierno de España. Hartua:

- <http://www.inmujer.gob.es/MujerCifras/EmpleoPrestaciones/MercadoTrabajo.htm>

- <http://www.inmujer.gob.es/MujerCifras/EmpleoPrestaciones/InactividadCambiosEmpleo.htm>.

Ministerio de Educación y Formación Profesional, Gobierno de España. Hartua:
<https://www.mecd.gob.es/servicios-al-ciudadano-mecd/estadisticas/educacion.html>

Ministerio de Trabajo, Migraciones y Seguridad Social, Gobierno de España. Hartua:

- <http://www.empleo.gob.es/es/estadisticas/anuarios/2016/index.htm>
- <http://www.empleo.gob.es/es/estadisticas/contenidos/anuario.htm>

“Posicionamiento de la Red Feminista de Derecho Constitucional ante la necesaria reforma de la Constitución”, *Red Feminista de Derecho Constitucional. Mujeres en la Red. El periódico Feminista*, 1-5 or. Hartua:
<http://www.mujeresenred.net/spip.php?article2300>